

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 16a / 740. zenbakia

MANIFESTAZIOA / Jon Agirrerri 92. artikulua aplika diezaioten

Jon Agirre etxera ekartzea eskatuko dute bihar, zapatua, Arrasateko kaleetan

UBANE MADERA

Besteak beste, Aramaioko eta Arrasateko udalek, EAJ, Batasuna, EA, EB, Aralar, ANV, Zutik eta Herri Anitza alderdiek eta ELA, LAB, CCOO, EHNE eta ESK sindikatuek deitu dute biharko manifestazioa. 19:00etan da hitzordua, Herriko Plazatik aterata.

Jon Agirre presoari 92. artikulua aplika diezaiotela eskatu gura dute manifestazioarekin, orain arte erabili dituzten bide burokratikoek ez dituzte eta emaitza positibo askorik eragin. 92. artikulua aplikatzen da preso batek osasun arazo larriak dituenen. Baina Jon Agirrerren kasuan, dagoeneko urtebete daramate aramaiotar haren osasun egoera larria salatzen, eta zenbait ebakuntza egitea lortu duten arren, Jon Agirrek kartzelan jarraitzen du. Hala gogoratu zuten Jon Agirre Herri Ekimeneko ordezkariak martitzenean, Monterronen emandako prentsaurrekoan. Aipatu beharra dago babes sozial handia lortu dutela presoaren inguruan sortu den taldean; martitzeneko prentsaurrekoan, esaterako, kultura elkarte, gazte talde, kirol talde, sindikatu eta alderdi politiko ugariaren ordezkariak parte hartu zuten.



Mahaian: Jon Agirrerren arreba, Arrasateko alkatea, Jon Agirre ekimeneko bozeramaile Ramon Urrizalki eta Aramaioko alkatea.

BORONDATERIK EZ

Jon Agirrerendako askatasuna eskatzeaz gain, besteak beste, Estatuko gobernukoek orain arte "borondaterik eza" erakutsi dutela ere salatu zuten: "Jonek 64 urte ditu eta 24 urte eta erdi daramatza espetxean. Zigorren 3/4ak orain dela hamar urte bete zituen, eta datorren urte amaieran kale-

Oraingo astean bertan ukatu diote Jon Agirrerri 92. artikulua aplikazioa

ratu egin beharko dute, zigorra guttiz betetzen duelako. Garai berriak omen datoz, baina Espetxeko Zuzendaritza Zaintzak eta atzetik dagoen gobernuan borondate txikia dagoela iruditzen zaigu".

KONTRAESANAK

Halaber, jakinarazi zuten oraingo astean bertan jaso duela Agi-

rrek 92. artikulua ukazioa Auzitegi Nazionalako Zaintza Epaitegitik. Haren arabera, Jon Agirrek hirugarren graduan beharko luke artikulua hori aplikatu ahal izateko, eta gainera, txosten medikua ere beharko luke, espetxeko zerbitzu medikuek egindakoa. Zaintza Epaitegiaren ustez, Jonek ez ditu baldintza horiek betetzen. Jon Agirrerren aldeko taldeak, berriz, zera salatu du: "Esaten da lehen graduan sailkatua zegoela, nahiz eta arazo medikoa direla eta bertan behera gelditu den sailkapena. Zertan gelditzen gara orduan? Lehen graduan dago edo bertan behera gelditu da sailkapena? Espetxeko zerbitzu medikuek ez badute egin txosten medikurik, non oinarritu ziren orduan lehen graduko sailkapena bertan behera gelditzeko orain dela sei hilabete eta egoera horretan mantentzeko?".

Horrez guztiaz gainera, Osakidetzak egindako txosten medikua helarazi ziguten Jon Agirrerren aldeko herri ekimenekoek. Honako diagnostikoa egin diote: eskumako mokorrean artoplastia; koxartrosia ere badu, eskumako eskuan Dupuytren gaixotasuna du, hipertentsio arteriala, fibrilazio aurikularra, diabetesa, neuropatia diabetikoa, hiperurizemia eta miopia.

Desadostasunak udal gobernuan, alokairuzko etxebizitzak direla-eta

U.M.

Kontua da Caixak eta Kutxak gazteendako eta 65 urtetik gorakoendako etxebizitzak eraiki gura dituztela Arrasate Musikal inguruan. Orain, berriz, Jaurlearitzak beste proposamen bat egin du.

Eta horrexek piztu du gobernuko alderdi politikoen arteko desadostasuna. Izan ere, orain erabaki beharko dute zein proiektu onartu: Kutxa-Caixarena edo Jaurlea-

ritzako Etxebizitza Sailak egindakoa. Inazio Lakuntza alkateak zera adierazi zuen Arrasate Irratian: "Caixarekin eta Kutxarekin ia urtebete daramagu proiektua lantzen eta Caixa gertu legoke datorren maiatzean bertan hasteko hondeatze lanak egiten. Jaurlearitzaren proposamenean, berriz, ez dute ezer zehaztuta, ez datarik eta ez ezer. Eta kontuan hartuta Zerrajerako etxeak eraikitzen hasteko zenbat denbora eman duten... Astelehenean osoko bilkura berezia egingo dugu.

Alokairuzko etxebizitzaren gaia izango da gai bakarra. Orduan erabakiko dugu zeinen proposamena onartu".

900 ETXEBIZITZA ERAIKITZEN

Etxebizitza kontuekin segituz, alkateak irratan jakinarazi zuen orain 900 etxebizitza eraikitzeke obrak hasita daudela Arrasaten, horietatik 365 babes ofizialekoak. Halaber, jakinarazi zuen hementik urtebetera edo bi urtera beste 700 etxebizitza eraikitzeke lanak hasiko dituztela.



Inazio Lakuntza, Goiena kooperatibak Otalora kalean duen egoitzan.

MIKEL LUPIANEZ

ELKARRIZKETA

VERONIKA GARAI ETA KEPA ORMAETXEA

“Jende askoren lanari esker atera dugu proiektua, eta aurrera egingo dugu”

UBANE MADERA

I rati elkarte eta Arrasateko Arranoa zabaldu zituzteneko 25. urteurrena ospatzen dabil-tza egunotan. Hain justu ere, abenduaren 20a, martitzena, dute egun handia. Sorreran ibili ziren Veronika Garaik eta Kepa Ormaetxeak kontatu digute gehiago:

Hasteko, zein ekitaldi dituzue aurreikusita?

Gaur, egubakoitza, 20:00etan ekitaldi politikoa egingo dute Arranon; Joseba Permach etorriko da; izan ere, 15. urteurrena bete zenean, Jon Idigoras etorri zen. Bal-koitik bota zuen mitina, jende mordoaren aurrean. Asmoa da antzeko zerbait egitea. Gero, 21:00etan bertso-afaria dago. Bihar, berriz, 11:00etan tortilla txapelketa dago, Arranon eta 16:00etan mus txapelketa. Eta urteurrenaren egunean, martitzenean, izango da argazki-erakusketa, ikus-entzunezkoa ere izango da eta “lehengo zaharrok” esplikatuko dugu historia. Gero, lancha egingo dugu. 19:30ean hasiko da guztia.

Zela gogoratzen dituzue hasiera haiek?

Arranoren edo Iratiren hasiera ezin da kontatu ez badugu kontatzen Herri Batasunaren hasiera, behintzat Arrasaten. Ni gogoratzen naiz 1978an jaio zela HB, eta hasi zela Espainiako Konstituzioaren aurkako kanpaina egiten. Gogoan dut orduan etorri zela ordura arte EEko parlamentari izan zena, Frantzisko Letamendia Ortzi. EETik atera eta HBra pasatu zen eta kanpaina horretan parte hartu zuen. Arrasaten, Herriko Plazan izan zen mitina ematen. Horren ostean etorri ziren lehen hauteskunde demokratikoak, udal-letxerako. Orduan KAS zegoen eta ESBrekin (Gregorio Etxabe, Jesus Larrañaga...) bat egin genuen hauteskundeetarako. Handik atera zen lehenengo zerrenda. Lau zinegotzi atera zituen HBk. Hori ere ipiniko dugu erakusketan. Eta



U.M.

orduan ikusi genuen aurrera egiteko azpiegiturak behar genituela, tartean, lokala. Halaxe eskuratzen genuen erdiguneko lokala.

Anekdotak asko izango dituzue horrenbeste urte eta gero...

Adibidez, 1980ko San Juanetan zabaldu genuen taberna dirua ateratzeko; barra egin genuen pinuen enborrekin. Militante guztiak lanean ibili ginen. Bazkideak ere egin genituen, 400 bazkide izatera iritsi ginen. Bakoitzak 1.000 pezeta pagatzen genituen hileru. Obrak egin, eta Gabonetan zabaldu genituen ateak. Hasieran jangela ere bagenuen; beteta egoten zen; baina kooperatibak jangela zabaldu zuenean, jende kopurua jaitsi egin zen eta itxi egin genuen gure jangela.

Beste anekdota bat da, esaterako, Jon Agirre izan zela zerbitzari, atxilotu zuten arte.

Gogoan dituzuen gertaera nabarmenenak zeintzuk dira?

79an, Enrike Gomez hil zuten

eta Arrasaten Guardia zibilak tiroka desegin zuen manifestazioa; 1984an Perez de Arenaza hil zuten, Miarrizten; urte berean Pakito Arriaran hil zuten, Salvadorren; 1987an Txomin Iturbe hil zen Aljerren. Urte berean lortu zuen HBk alkatetza...

Espioitza kasu bat baino gehiago ikusi dira Arranoetan; hemen sumatu duzue halakorik?

Ez, kontu handia izan dugulako. Neurriak hartu genituen obrak egiterakoan. Bunker bat da. Leihoak eta daude blindatuta...

Zela dago 18/98 sumarioa Arrano eta Iratirekiko?

Ditugu kontuak blokeatuta eta kontrol judizialpean. Edozelan ere, HBren lokala eta jarduerara politikoa jende askorendako erreferentzia izan da eta jarraituko du izaten. Jende askoren lanari esker aurrera atera dugu proiektu hori eta batzuek guri atak eta bideak itxi nahi dizkiguten arren, aurrera egingo dugu.

Astehenean hasiko da trukean oinarritutako azoka

U.M.

Eguberritarako azoka berezia antolatu dute Emakume Txokoa: trukean oinarritutako. Besteak beste, kontsumoaren gaineko hausnarketa bultzatu gura dute azokarekin.

Horrez gainera, berrerabilpenaren aldeko apustua ere egin gura dute.

Azoka hori interesa duten herritar guztiendako izango da zabalik. Baldintza bakarra da norberaren bi edo hiru gauza trukatzeko gertu izan behar dela. Hala, norberak balioa ematen dion zer-

bait eraman behar da Emakume Txokora (jantziak, liburuak, apain-garriak...) eta trukean, beste biz-pahiru gauza hartu ahal izango dira. Abenduaren 19an hasi eta abenduaren 21a bitartean egingo dute azoka, 16:30etik 19:30ak arte.

PRODUKTUAK BATZEN

Dagoeneko hasi dira azokarako produktuak batzen; izan ere, batzuk alde aurretik eramaten ibili dira. Bestalde, azoka bukatutakoan sobratu zaiena beharra duen elkarte bati emango diote.

Asteburuan bigarren eskuko azoka izango da, Seberren

U.M.

Portaloira Topaguneak antolatu du azoka, dirua batzeko helburuarekin. Zapatuan eta domekan ipiniko dituzte saltokiak, ezustekorik ezean, Seber Altuben, 11:00etan hasi eta 20:00ak arte.

Jantzi mordo bat dute, gainera, azokarako. Portaloira topaguneko kide Iraia Solak jakinarazi digunez, 500 bat jantzi eman dizkiete herritarrek: prakak, kamisetak, txamarrak, jertse-

ak... “Jendeak oso ondo erantzun du, ea azoka egunean ere modu berean erantzuten duen”.

Batzen duten dirua presoei laguntzeko erabiliko dutela esan digu: “Presoendako diru apur bat batzeko betekoa egin behar-reen, zozketetarako txartelak eta horrela, pentsatu dugu bigarren eskuko azoka egitea”.

Gainera, esan digu aurtengo ekimena ondo ateratzen bada, datorren urtean halako beste azoka bat antolatuko dutela, baina handiagoa, jantziez gainera, bestelako gauzak ere badituena.



Gaztetxean gorde dituzte batutako jantziak; argazkian Portaloirako kide Aitor Urizar.

LABUR

Industria Museoa 2007rako, seguruenik

Saiolango barreneko solairua Industria Museoa izateko egokitu behar du Udalak. Orain, proiektua idazten dabilta arkitektoak. Gauzak ondo badoaz, 2006ko erdialderako bukatzea espero dute. Eta gero, 2007an museoa janzten hasia espero dute. Baina orañdik ez da zehatza.

370 otarre saldu dituzte, Zuberoaren alde; antolatzaileak oso pozik daude emaitzarekin

Eta horregatik eskerrak eman gura dizkie laguntza eman duten guztiei, baita ere, ekimena bultzatzen ibili diren guztiei. Ekimenaren antolatzaileek esan digutenez, ez zuten espero halako erantzun onik; izan ere, iaz, 200 otarre saldu zituzten eta aurtan ia bikoiztu egin dute kopuru hori. Gogoratu dezagun otarreak saltzen batutako dirua Zuberoako ikastolei (Sohütakoa eta Alozekoa) eta laborariei laguntzeko erabiliko dutela. Esaterako, ikastoletarako materiala erosteko erabiliko dute, ateraldiak antolatzeko, ikastolen mantenu lanak egiteko... Ikastolek zor handiak izaten dituztela esan digute.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, agerraldia egingo dute, Pobrezia Zero kanpainaren barruan

Bando baten bidez, alkateak herritarrek gonbidatu ditu gaurko kale agerraldira, Arrasateko Pobrezia Zero Plataformaren eskaerarekin bat eginez. Horrez gainera, Inazio Lakuntza alkateak herritarrek gonbidatu ditu, baita ere, pobrezia kontrako pankarta etxeko balkoietan ipintzera, honako helburua lortzeko: “Gu gobernatzen gaituztenei presioa eragiteko, erroitik kentze aldera, bate-tik pobretasun larri eta handi hori eta bestetik gure munduan desberdintasun itzelak sortzen dituzten arrazoiak”. Hain zuzen ere, Udala bera ibili da pankarta hori banatzen laguntzen.

Leintz ibarra eta Oñati elkartu egin dira sahararrei laguntzeko

U.M.
 Arrasateko, Aretxabaletako, Oñatiko eta Eskoriatzako udalak indarrak batu dituzte sahararren aldeko Gabonetako elkartasun kanpainen. Eta dei egin dute aurten ere azukrea, atuna oliotan eta konpresak eramateko. Herri guztietan ipini dituzte esandako produktuak batzeko puntuak.

Hain justu ere, abenduaren 26ra arte ibiliko dira batze lanak eginen. Esandako herrietako ikastetxe guztietan egin dute azukrea, atuna edo konpresak eramateko eskaera. Horrez gainera, udal-erretako sarreretan kutzak ipini dituzte eta baita ere Arrasateko Eroski hipermerkatuan, Zerrarako Eroski Centerren, BMn eta Dian. Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Oñatin, berriz, Eroskiko saltokietara eraman ahal dira produktuak, baita beste zenbait komertzioetara ere. Informazio gehiago behar duenak tokian tokiko udaltxera dei dezake.

KONTU KORRONTEA

Prentsaurrekoan jakinarazi zuten bezala, batutako produktuak Arrasateko Pablo Uranga kalean gordeko dituzte. Hain zuzen ere, jakinarazi dute batutako guztia behar bezala kontatzeko eta paketatzeko



Etxeberría zinegotzia, Juldain (NUBI) eta Oliden, Aretxabaletako alkatea.

ko ere beharko dutela herritarren laguntza. Telefono zenbaki bat helarazi dute, lagundu nahi duenak dei dezan: 685 72 48 17.

Hori produktuak batzeari dagokionez. Baina gero, produktu horiek Saharara eraman behar dituzte, eta horretarako, kamioiak behar dituzte eta jakina, kamioiak alokatzeko, dirua. Hala, dirua batzeko Euskadiko Kutxan kontu korrante bat zabaldu dute: 3035 0080 94 0800054177.

Iaz 30 bat kamioi bete produktu eraman zituzten Euskal Autonomia Erkidegotik.

GAINDITU BEHARREKO ERRONKA

Hain justu ere, aurten iaz batutako produktu kopurua gainditu gura dute hemen, Leintz ibarreko herri guztiak batera ibili behar direlako Sahararako Elkartasun Karabana bultzatzen. Iaz, 4.600 kilo jaki batu zituzten Arrasaten.

Autobus urbanoarendako bi geralekutan markesinak ipini dituzte

U.M.
 Erabiltzaile kopurua eta aterpe beharra kontuan hartu dituzte Udalak markesinak ipintzeko lekuek aukeratzeko orduan. Hala, Otalora kalean eta Agerre plazan ibili dira geralekuak egokitzeko. Azaro amaieran hasi zituzten lanak, eta ezustekorik ezeean, oraingo astean bukatuta beharko lituzkete.

Markesina ipintzeaz gainera, Otalora kalean espaloia zabaldu egin dute apur bat eta oinezkoendako zebrabidea ere ipini dute, berri horietakoa, ibilgailuen abiadura motelarazten duen horietakoa.

Lehen esandako moduan, Otalora kalea eta Agerre plaza aukeratu ditu Udalak markesinak ipintzeko, bi leku horietan autobus urbanoaren erabiltzaile asko ibiltzen direlako eta aterperik ez dutelako. Horrez gainera, Otalorako geralekuaren kasuan, kontuan hartu dute gurgildun aulkiek ibiltzen diren zenbait pertsona garraiatzeko autobusa atzeko aparkalekuan geratzeko dela. Hala, haiek ere





Otalorako markesinaren aurrealdeko aparkalekuak kendu egin beharko dituzte.

urbanoaren markesina erabil dezaten egokitu dute gunea.

AURRERAGO GERATUKO DA

Era berean, orain arte urbanoa Otalora kaleko biribilgunearen bihurtzean geratzen zen, mar-

kesina dagoen lekua baino atzerago. Hori ez zenez oso egokia, hemendik aurrera markesina aurrean geratuko da. Jakina, horretarako, markesina aurretik biribilgunerainoko aparkalekuak kendu egingo dituzte.



“Etxean bi hizkuntza entzuten dira: euskara eta frantsesa”

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Jabier Retegi dugu oraingo honetan berba lagun. Zera dio, hasteko: “Autobiografia bat egiterakoan, norbera zer den edo zer egin duenak baino interes handiagoa dauka nork bere bizitzan zer ikusi eta nola sentitu eta interpretatu duen. Testuinguruak ematen die ekintzei zentzua eta esanahia”.

1964an jaio nintzen Bergaran. Asko bezala, Mizpildi kalearen bukaerako “Maternidad”-ean. Norbaitek, Bergaran jaiotzea, kasualitatez izango zela pentsatuko du, baina nahiz eta Arrasaten bizi, senide gehienak *Bergarakuak* ditut.

Francoren azkeneko urteak ziren eta kalean erdara nagusi. Etxean, gurasoek behin eta berriro esanda, beti euskaraz. *Bergarakuak* noski. Hizkuntzaren koloreak ez dira egun batekin bestera desagertzen. Urtekin, Arrasateko euskararen hitzak eta tonuarekin nahastu nituen Bergarakoak modu natural batean eta konturatu gabe.

Ikasketak erdaraz egin nituen, beste aukerarik ez baitzegoen. Handik gutxira, bi urte gazteago den anaiak ikasketa guztiak euskaraz egin zituen. Egia esan, 14 urte inguru nituela *Euskera* izeneko eskola batzuk izan nituela gogoan dut.

22 urtetik aurrera, gehienbat, frantsesez ikasi dut. Québecen pasa nituen lau urte eta erdi. Québec, Euskaldunentzako erreferentzia. Beste mota bateko Hizkuntza eta Kulturaren harrotasuna sentitzeko aukera. Frantsesa, Québeceko azentuarekin, ikasi eta han integratu nintzen. Han entzun nuen, 60ko hamarkadan *Iraultza Lasaia* izeneko prozesuari buruz. Kanadan, urte horietan

Québeceko herri frankofono eta katolikoak aurrerapauso erabakigarria eman zuen, frantsesa negoziatzen, goi mailako hezkuntza erakundeetan eta bizi modernoan haize-bolada lasai baina geldiezin bezala sartu zenean. Prozesu horretan indartutako Unibertsitate frankofono batean ikasi nuen, frantsesez, baina zenbait ikasgai eta praktika ingelesez egin behar izan nituen. Interesgarria iruditu zitzaidan *Iraultza Lasaia* horren jarraipenaren partaide izatea, Québeceko nazioarteko zabalkuntzaren prozesuan. Geroztik, neska québecar bat ezagutu eta harekin ezkondu nintzen. Laster hasi zen euskara ikasten eta gaur egun ondo moldatzen da.

Nire etxean, bi hizkuntza entzuten dira: frantsesa eta euskara. Harrigarria da hizkuntzak ikasi eta bereizteko umeen erraztasuna. Norekin nola hitz egin jakiteko arazorik gabe. *Une personne, une langue*, aspaldiko Grammont-Ronjat printzipioa etxean frogatzeko aukera izan dugu.

Hizkuntzarekiko nire harremana iraganean eta gaur egun euskararen alde dabilzan hainbizi pertsonen lanak sortutako giroan ulertu behar da. Haiei esker, gaur egungo egoera duela urte batzuk zenarekin alderatuz, askoz ere hobea da.

“Etxean, gurasoek behin eta berriro esanda, beti euskaraz egiten genuen”

“Quebecar batekin ezkondu nintzen; euskara ikasten hasi zen eta orain ondo moldatzen da”

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 16**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- ZAPATUA, 17**
Español, Araba etorb.14. 943 79 18 65
- DOMEKA, 18**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 19**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- MARTITZENA, 20**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 21**
Azkoaga, Iturriotz 17. 943 79 79 99
- EGUENA, 22**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUBAKOITZA, 23**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelohenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

- Arrasate**
Astelohenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

| San Juan parrokia | San Andres eliza |
|---|--|
| Zapatua 19:00 (elebiduna) | Zapatua 19:00 (elebiduna) |
| Domeka 09:00 meza nagusia 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna) | Domeka 10:00 (gaztelerez) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza | Santa Teresa eliza |
| Zapatua 19:00 (elebiduna) | Domeka 12:30 (gaztelaniaz) |
| Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 (elebiduna) 19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza Jalegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia | Domeka 11:00 (elebiduna) |
| Zapatua 19:00 (elebiduna) | San Isidro |
| Domeka 12:00 (elebiduna) | Domeka 12:30 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

'BASERRIA' ZARZUELA
Gaur, egubakoitza, eta bihar izango dira *Baserría* zarzuela ikusteko azkeneko egunak. Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak egin du. Gaurkoa 19:30ean izango da eta biharkoa 19:00etan.

1955EAN JAIOTAKOEN JAIA
Bihar, zapatua, 1955ean jaiotako arrasatearrek ospakizuna egingo dute. 13:00etan, Portaloian hitzordua egin dute txikiteoa egiteko. 14:00etan, Monterronen elkartuko dira argazkia egiteko. Eta 14:15ean autobusa izango dute zain Okoretzgi tabernaren parean. Bazkaria Sara jatetxean egingo dute.

ARRANOAREN URTEURRENA
Gaur, egubakoitza, ekitaldi politikoa egingo dute 20:00etan. 21:00etan, bertso afaria izango da. Bihar, zapatua, tortilla txapelketa egingo dute 11:00etan. 16:00etan, berriz, mus txapelketa jokatu dute. Bukatzeko, martitzenean, hilaren 20an; luntxa, Arranoaren historiaren gaineko berbaldia eta erakusketaren inaugurazioa egingo dute.

'LARUNBLAI', SAN ANDRESEN
Bihar, zapatua, mozorroak egingo dituzte San Andresen, 11:30etik 13:30era.

AEDrenAGENDA

SEASKA ETA DEBAGUNE
Seaskak eta Debagunek argitaratutako egutegiak salgai daude AEDn. Debaguneko, urtero moduan, ibarreko argazki zaharrekin apainduta dago.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Udaltzainen eta ertzainen arteko elkarlana

Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren artean koordinazio batzordea sortzeko proposamena eztabaidagai izan zuten osoko bilkuran. Elkarlan hori aurrera eramateaz alkattea eta udaltzain eta ertzaintzaburuak arduratuko ziren. Hbk ezezkkoa eman zuen; beste guztiek, berriz, baiezkoa.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Zurrutero"



— Erriko zurruteruak txikiteuan ikusten dabe elkar. JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Ana Nevado eskoriatzarra *Basetxea gori-gorian* saioko lehiakidea da. MIKEL LUPIAÑEZ

Inazio Lakuntza eta 'Basetxea'-ko lehiakide eskoriatzarra, 'Asteko gainbegiratu'-n

Urtean birritan egiten diogu elkarrizketa zabala alkateari. Astean Nerea Zubiete kazetariarekin izan da Inazio Lakuntza, azken hilabeteetan pil-pilean dauden herriko hainbat gairen gainean berbetan: etxebizitzaren eta errepide-arazoaren gainean jardun dute, besteak beste. *Asteko gainbegiratu*-n izango dugu Lakuntzak kontatutakoak entzuteko aukera. Horretaz gain, telebista kontuak ere batuko ditugu asteburuko

hitzorduan: Ana Nevado ETB1eko *Basetxea gori-gorian* saioko lehiakide eskoriatzarrarekin izan gara.

EGUENEAN, SANTAMASAK

Abenduaren 22an Santamasak ospatuko dituzte herrian, eta irratia ere esku hartu gura du jai giroan. Urteroko ohiturari jarraituz saio berezia eskainiko dizuegu 10:00etatik 13:00etara. Ondoren, musika lagun ordu batez, eta 15:00etan, goizeko saioaren errepikapena.

HAUGIROA!

| | |
|---------------------------|--------|
| MINIMOA Zapatua, 10 | 0 °C |
| MAXIMOA Egubakoitza, 9 | 11 °C |
| ASTEKO EURIA (l/m²) | 27,2 L |

| | Max. | Min. | Euria |
|----------------|-------|------|-----------|
| Eguaztena, 7 | 10 °C | 4 °C | 1,3 l/m² |
| Eguena, 8 | 10 °C | 5 °C | 21,9 l/m² |
| Egubakoitza, 9 | 11 °C | 7 °C | — l/m² |
| Zapatua, 10 | 8 °C | 0 °C | — l/m² |
| Domeka, 11 | 8 °C | 1 °C | — l/m² |
| Astelehena, 12 | 8 °C | 5 °C | 0,2 l/m² |
| Martitzena, 13 | 6 °C | 5 °C | 4,8 l/m² |

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiratu.
Inazio Lakuntza, Arrasateko alkatea; Ana Nevado, *Basetxea* saioko lehiakidea; Irati Arantzabal, Etxerat elkartearen kidea; Ibilu munduan geltokian, Saharara bidaiak; Lorategia geltokian, bonsaiak berbagai...
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiratu.
- ASTELEHENETIK EGUAZTENERA**
10:00-12:00 IGO AUTOBUSERA!
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegi.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tartea (errep.)
- EGUENA, SANTAMAS EGUNA**
10:00 Santamas saio berezia.
15:00 Santamas saio berezia (errep.)
- EGUBAKOITZA**
10:00 Elkarrizketa bilduma.
14:00 Elkarrizketa bilduma (errep.)

KALEINKESTA/ Zubixen lagun mordue hil die akzidentietan. Horrek badauko konponbideik?



MIGUEL AIESTARAN
Langillie



BEATRIZ CORRAL
Langillie



MARIA JESUS LOPEZ
Langillie



ROSA MARI AGIRRE
Langillie



MARI JOSE BOLINAGA
Langillie



IÑIGO LEIBAR
Langillie

Konponbide gatxa dauko. Batez be kurbek daukien peraltie eta karreterak konponduko neuke. Behin horreik egin ezkerro, akzidente gutxiago egongo litzaitezela pentsetan dot.

Kotxien potentzia orduko 120 kilometrotan limitauko neuke. Jentie aguruei ibiltten da. Interes haundixe dau kotxe potentiek egittek, baiñe neure ustez, konponbidie hor dau.

Kontrol gehixau jarri biherko leukela pentsetan dot, bai belozidadiena eta baitte alkoholemiana be. Gauza gehixau hobetu ahal izengo die, baiñe horretxek inddertuko neuke batez be.

Kotxe larrei dauela pentsetan dot, baiñe kotxe barik gatxa da ibilttie. Belozidadi eta alkohola zaindu biherko leukie, baiñe ez dakit problema horrek konponbideik daukon.

Polikixau eta lasaixau ibilli biherko geuke. Norbera lasaixau egon eta itxoin biher danien itxoin, pazientziakin. Karreterak hobeketie be komeni da, horrek be lagunduko leuke.

Nik pentsetan dot belozidadi mugak errespetau biher doule. Gero eta kotxe gehixau dauz eta ardura txikiñe daukou bidien. Norberan esku dau peligrue txikiñe izetie.

USTEAKUSTE

Txapela

A skotan pentsatu dut pausoak aurrera eman beharrean, atzera ematen ditugula. Bukatzera doan 2005ean Francok urtegiak inauguratzen zituen sasoiaren parean gabiltza, baina ur gutxiagorekin eta errepide eta porlan gehiagorekin.

Ez dago munduan gauza atzerakoiagorik Guardia Zibila baino. Frankismoarekin eta Espainiako garai ilunenean lotutako konnotazio izugarriak ditu. Triakornioari dagokionez, adituek ez dakite pop-art edo gotikoaren barruan kokatzen. Hain da berezia txapela museo baten egon zitekeela. Baita ere Eliza katolikoko agintari nagusien jarrera eta pentsaera. Are gehiago, Ratzingerrekin formak ere okertu dira. Triakornioak eta Ratzingerrek bat egin zutenean keinu zatarrak iruditu zitzaigun, baina azken finean eskola antzekoak dira.

Bestalde, Gabonak direla baliatuz, gaur egungo tendentziak bat egiten duen txapelaren bat erosi gura izanez gero, ez dugu erraz halakorik salgai aurkituko, eta lortuz gero, txarto begiratuko gaituzte. Galdetu bestela petatxudun aterki handiaren azpitik Kataluniari eta bestelakoei ezertxo mugitu utzi gura ez diotenei.

IKER BARANDIARAN

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK LANETAKO HONDAKINEN KALTEAK Herritar batek aditzera eman digu Udalarekin oso haserre dagoela. Kontua da uda aurretik herrian dagoen kutsadura neurtu zutenean ondorioztatu zutela lanen hondakinak oso kaltegarriak direla. Hondakinak kalean utziz gero, haizeak partikula kaltegarri batzuk zabaltzen dituela. Irakurlearen esanetan, herriko hainbat lanetan hondakin mordoa dago. "Adibidez, Gelmako eraikin zaharrak botatzen hasi zirenetik hondakin mordoa dago. Udalak behartu egin beharko lituzke hondakinak jasotzera".

ASTEKODATUA

900

ETXEBIZITZA EGITEKO LANAK HASITA DAUDE

Herrian 900 etxebizitza egiteko lanak hasita daudela eman du aditzera herriko alkate Inazio Lakuntza Arrasate Irratian. Hainbat lekutan egiten dabilta horiek: Zerrajeran, Gelman... Etxe horietatik 365 babes ofizialekoak izango dira.

HERRITARREN BERBAK/ Ander Etxeberria



Euria egin dezala

Inguratuta gaude. Mende-baldetik datorren haizeak berrikuntza guneke obren hautsa dakar; ekialdekoak kirol esparru berriaren obrarenak; iparraldetik eta hegoalde-tik, berriz, harrobiena. Hegoaldeko harrobiaren zapatu eguerdiko eztañak amaitzeaz badaude ere, autopistaren obrek ordezkaturiko dute frente hori. Hori eta lantegien emisioak inguruetatik bada-toz, hirigunean poluitzaile gehiago: obrak hemen ere eta, nola ez, trafikoa, etengabe hona eta hara dabiltzan autoak.

Uztailean prentsan azaldutakoaren arabera, Arrasaten, airearen kutsadura legeak ezartzen duena baino 40 bider handiagoa da. Konkretuki, partikula fin batzuk dira arazoak: airean geratzen dira eta arnas aparatuan eragin dezakete. Datua 2003-2004 urteetako da, orduan egindako neurketen berri eman baitzen. Hortaz, gaur, seguru aski obra eta kotxe gehiago egonik, oraindik eta

okerragoa izango da barnerrazten dugun airearen kalitatea!

Informazioarekin batera adierazten zen hainbat neurri hartu behar zirela egoerari aurre egiteko. Eta aipatzen zen, besteak beste egunotan ikusgai izan dugun Arrasateko Mugikortasun Plan Iraunkorra. Hala ere, planaren epeke luze joko dute eta, gainera, hein handi batean jendearen eskuetan geratzen da bere eraginkortasuna. Bestelako neurriak auskalo zein egoeratan dauden, oraindik ohikoak dira-eta, esate baterako,

mendealdeko haizearekin batera Gautxori zenaren inguruko obretatik datozen hauts boladak. Hau horrela, hobe izango da beste nonbait begiratzea epe motz-ertainean behintzat. Adibidez, gora, lainoetara. Hori da: euria egin dezala (euri azidoa ez den bitartean). Euria egin dezala azaroan bezala abenduan, udazkenean, neguan, udaberrian eta baita udan ere. Euria egin dezala osasunaren onerako.

"Konkretuki partikula fin batzuk dira arazoak: airean geratzen dira eta arnas aparatuan eragin dezakete"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Kepa Martelo

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaimzarain
Añe Berezibar
Iratxe Bengoa

ARGAZKIAK
Mikel Lupiáñez

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Atxabalpen puntu gehiagok ihes ez egitea, horixe Mondraren helburua.

KIROLAK/ Saskibaloitza taldeak lehenengo faseko azken norgehiagoka jokatu du bihar

Mondrarendako izan ezik, gainontzekoendako azkena

XABIER URTZELAI

Mugarri Alkesa Saskibaloitza Taldeak bihar arratsaldean jokatu du urteko azkeneko norgehiagoka, eta partidu horrekin amaitu du lehenengo fasea. Mondrak, berriz, ezin horrelakorik esan; urteko azken asteburuan ere jardunaldia izango du-eta.

Paduraren kontra jokatu du lehenengo postuan dagoen Mugarri Alkesa Arrasatek. Joan den astean Nafarroan itxura kaskarra erakutsi eta gero, Zurututzaren mutilek gurako dute euren zaleen aurrean urtea behar den moduan amaitu. Baina kontuan

izan behar da, baita ere, Padura eta Tabirako direla laugarren postuagatik lehian dabiltzanak. Eta, arrasatearrek ez dute Tabirako inolaz ere sailkatzerik gura: euren kontra jokatu du bi norgehiagokak galdu egin zituzten, eta igora fasean hori kontuan hartuko dute. Hala, aintzat hartu beharko dituzte karanbola horiek guztiak.

MONDRA-ANAITASUNA, BIHAR

Arrasateko futbol taldearen kasua sinpleagoa da. Bi norgehiagoka geratzen dira urtea amaitzeko, eta berez, Gabonetan lan egitea gogorra bada, gutxienez puntuak eskuratzeko baliagarria izan dadila.

Horretarako, Igor Gordobi-

len mutilek bihar izango dute lehenengo aukera. Arrasatearrek 12. postuan dagoen Anaitasuna izango dute aurrean. Talde horrek bi norgehiagoka irabazi ditu etxetik kanpo, eta aurrealdean ez da talde indartsua.

Eta, urteko azkeneko asteburuan, Mondra azkenasteko postuan dagoen Hondarribiaren kontra lehiatuko da. Kontrario horrek bi norgehiagoka baino ez ditu irabazi, biak etxean. Hori bai, adituak dira atzealdean ondo kokatu eta partiduak berdintzen.

Horiek dira Mondraren hurrengo hitzorduak; sei puntu dituzte jokoan, datorren urtea motibatuta hasteko eskuratu behar direnak.



Bigarren postuaren bila, Ormaiztegi

Oraingo asteburuan norgehiagoka erabakigarria jokatu dute Ford Mugarri eta Ormaiztegi. Donibane Majestic da 17 punturekin Ligan agintzen duena, baina hurrengo bi taldeak gertu daude, Ormaiztegi eta Arrasateko taldea. Bi talde horiek 15 puntu dituzte eta oraingo asteburuan erabakiko da bietako nork eusten dion bigarren postuari eta nork egiten duen atzera. Datu bat: Arrasateko taldea da gol gutxienez jaso dituen taldea; horri eustea ezinbestekoa da. /X.U.

LABUR

Bidasoa taldean dabilen Lander Errastik dagoeneko gainditu du lau metroko hesia

Joan den astean Anoetan izan ziren Arrasateko atleta gazteak. Eta, atleta guztien artean azpimarratzeko marka egin zuen Lander Errastik, pertikarekin 4,10 metroko jauzia eginda. Eta, marka garrantzitsua da hori, lau metroko hesi psikologikoa gainditzea lortu du-eta. Horrekin batera, Markel Blanco bigarren izan zen Burlatako krosean, eta oraingo astean Azpeitian izango da, Gipuzkoako krosean. Hala, etorkizun polita duen Arrasateko korrikalariak ezin du Santamasetako krosean esku hartu; lastima!

ZALDIBARARETOFUTBOLA

PARTIDUAK

| ABENDUAK 17, ZAPATUA. | EPAILEAK |
|--|----------------|
| 10:00: Abokajarro - Billy & The... | Irish Pub |
| 11:00: Irish Pub - Saukelu Scream. | Abokaja. |
| 12:00: HLB 108 - Pippol. | Saukelu Scream |
| 13:00: Iluntz - Iritzu Taberna. | Pippol |
| 16:00: Aurrera Bolie - Berders Bremen. | THC |
| 17:00: Fuxxion - THC. | Berdes Bremen. |
| 18:00: AC Surcos - Tomahawk. | Fuxxion. |
| ABENDUAK 18, DOMEKA. | EPAILEAK |
| 11:00: Lasagabaster - Arrano Tab. | Betrayer |
| 12:00: Txoponbeixek - Betrayer. | Arrano Tab. |
| 13:00: Dribling - AT Celaya. | Txoponbeixek |

SAILKAPENA

| MULTZO BAKARRA | P | J |
|----------------------|----|---|
| 1. Betrayer | 12 | 4 |
| 2. Arrano Taberna | 12 | 4 |
| 3. Dribling | 12 | 4 |
| 4. Iritzu | 9 | 3 |
| 5. Abokajarro | 7 | 4 |
| 6. Pippol | 7 | 4 |
| 7. Saukelu Scream | 6 | 4 |
| 8. Txoponbeixek | 6 | 4 |
| 9. Tomahawk | 6 | 4 |
| 10. AT Celaya | 6 | 4 |
| 11. Billy & Cowboys | 6 | 4 |
| 12. HLB 108 | 6 | 4 |
| 13. Lasagabaster | 4 | 3 |
| 14. Fuxxion | 4 | 4 |
| 15. Irish Pub Dublin | 3 | 4 |
| 16. AC Surcos | 3 | 4 |
| 17. Iluntz | 3 | 3 |
| 18. Berdes Bremen | 0 | 4 |
| 19. THC | 0 | 3 |
| 20. Aurrera Bolie | 0 | 3 |

GABON AURREKO AZKEN JARDUNALDIA

KOPAKO LEHENENGO KANPORAKETAK EGINDA

Gaiean daude Gabonak, eta Liga Txapelketan lau jardunaldi baino ez dituzte jokatu Zaldibarren. Hori ez da, baina, arazoa, San Juanak arte gura beste asteburu izango dira-eta. Ligan bosgarren jardunaldia jokatu dute asteburuan, eta joan den astean deskantsua izanda gogotsu egongo dira asko eta asko. Kopan dagoeneko egin dituzte lehenengo kanporaketak, eta dagoeneko badakigu final-zortzirenetan nortzuk egongo diren. Hala, Lasagabaster, AT Celaya, Tomahawk eta Aurrera Bolie taldeek Ligan jarri beharko dituzte indarrak, dagoeneko Kopatik kanpo daude-eta. Eta, bide batez, goza ezazue oraingo asteburuan, Gabonak pasa arte Zaldibarren ez da-eta txapelketarik izango. Futbol txapelketarik ez, behintzat.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA


| |
|---|
| Mondra - Anaitasuna |
| Preferentea. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen. |
| Mondra - Bergara |
| Ohor.Gazt. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen. |
| Urki - Arrasate |
| Gazteak. Zapatuan. 19:00. Eibarren. |
| Arrasate - Eibartarrak |
| Kad. Zapatuan. 10:00. Atxabalpen. |
| Eibartarrak - Arrasate |
| Infantilak. Domekan. 18:00. Eibarren. |
| Mondra - Aloña Mendi |
| Emakumezk. Domekan. 15:30. Atxabalpen. |
| SANTAMASETAKO KROSA, |
| ENRIKE KABIKETA III. MEMORIALA |
| Gazteak. Domekan. 11:00-12:00. |
| Seniorrak. Domekan. 12:30. Seber Altuben. |

SASKIBALDIA

Mugarri Alkesa Arrasate - Padura
Lehen Maila. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

ESKUBALDIA

| |
|--|
| Ormaiztegi - Ford Mugarri Arrasate |
| Lehen Territ. Zapatuan. 18:00. Ormaiztegin |
| Arrasate - Urola Eutsi |
| Big. Territ. Domekan. 11:45. Iturripen. |
| Pneumax Elgoibar - Gatz Museoa Jakion |
| Gazteak Mut. Domekan. 09:30. Elgoibarren. |
| La Salle Legazpi - Gatz Museoa Jakion |
| Kadet. Mutilak. Domekan. 11:15. Legazpin. |
| Arrasate - Ereintza Aguaplast |
| Gazteak. Nesk. Domekan. 10:00. Iturripen. |



Gaur, egubakoitza, Muted 3.60 aretoan

Gaur, egubakoitza, Muted eta Bidebat taldeek kontzertua egingo dute 3.60 aretoan. Muted taldea Abadiñokoa da, baina Kristof programatzailea Arrasaten bizi da. Taldea ezaguna egin zen gure artean Danbaca Debagoieneko I. Musika Lehiaketan finalista izan zelako. Orain dela gutxi *Sarean* izeneko diskoa kaleratu dute Oihuka diskoetxearekin. Metal indartsua eta gogorra egiten dute, hip-hop eta programazio elektronikoenkin. /I.B.

Musika Eskolako eskutik, hainbat emanaldi egunotan

I.B.
Bihar, zapatua, txistulariek emanaldia egingo dute eskolan, 12:00etan. Eguztenean, hilaren 21ean, eskolako ikasleek kontzertua egingo dute 18:00etan; eta hilaren 31n, Bandak Amaia antzokian.

Atzo, eguna, Arrasateko Musika Eskolako tronboi, bonbardino eta tuba ikasleek kontzertua egin zuten eskolako aretoan. Luis Orduña eta Iker Olazabal izan ziren talde horien arduradunak. Bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako txistulariek emanaldia egingo dute eskolako areto nagusian. 12:00etan izango da hori, eta talde handiak esku hartuko du. Joko dituzten pieza gehienak euskaraz izango dira, eta ateak zabalik egongo dira.

Bestalde, eguztenean, hilaren 21ean, eskolako ikasleek opor aurretiko azkeneko emanaldia egingo dute. 18:00etan egingo dute eskolan, eta hainbat instrumenturen doinuak entzuteko aukera izango da. Ikasleen gurasoek eta bestelako herritarrek ikasleen abilezia ikusteko eta entzuteko aukera izango dute.

HILAREN 31N, BANDAREN KONTZERTUA
Horrez gain, aditzera eman digute Banda badabilela urte bukarrako kontzertua prestatzen. Are gehiago, eskainiko duten egitaraua aditzera eman digute: Ippolitov-Ivanoven *Procesion of the Sardar*; Williamsen *Schindlerren zerrenda*; Beobideren *Euskal rap-sodia*; Amadeo Vivesen *Bohemioak*; Reeden *Errege bidea*; Hautwasten *Grease*; eta *Indiana Jones*, hain zuzen ere.



ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Argazkian, txistularien taldeko kontzertu baten irudia.

ELKARRIZKETA

JUAN IGNAZIO MONTIANO/IDAZLEA

“Norberaren eleberriarekin barre egin dutela jakitea da idaztearen onena”

IKER BARANDIARAN

Juan Ignazio Montiano arrasatearra gogoz idazten dabil. Datorren astean *El fabricante de dragones* eta *Dragoi egilea* eleberriak aurkeztuko ditu Monterronen. Bata gaztelaraz eta bestea euskaraz, baina bi istorio desberdin.

Aldi berean bi eleberri argitaratu dituzu: *Dragoi egilea* eta *El fabricante de dragones*.

Bai, bitxia izan da. Arrasateko herensugearen kondairan oinarrituta bi eleberri desberdin egitea erabaki nuen: bata, helduendako; eta bestea, gaztetxoendako. Berez gaztetxoena beste argitaletxe batek argitaratu behar zuen, baina bertan behera gelditu zen. Horren ostean, Hiria argitaletxearekin berba egin nuenean editoreak aholkatu zidan hobe zela gaztetxoena euskaraz egitea. Nik zoritxarrez ez daukat euskaraz idazteko gaitasunik, eta Jon Iñaki Lasari eman genion eleberria itzultzeko lana.

Hortaz bi liburu aurkeztu dituzu Durangon?

Bai, hala da. Gainera, liburuak inprentatik irten berri zuden eta han jarri ziren lehenengo aldiz salgai. Ez dakit ziur zentat ale eraman zituzten, baina biak hala biak agortu egin ziren. Oso pozik nago.

Poliki-poliki, argitaletxe desberdinak tartekatuz, liburuak argitaratzen jarraitzen duzu. Zaila da idazleen artean lekua egitea?


Bai, berez zaila da. Hala ere, zailena da ilusioari eustea eta idazteko denbora hartzea. Horretarako, ezinbestekoa da liburuak argitaratzeko prest dagoen editore bat izatea, zugar sinisten duena, alegia. Dirua irabaztearena, jakina, ez dut inoiz aurreikusit. Ni 1995ean hasi nintzen eta ez naiz kexatuko.

Zure liburuek beti daukate ukitu ganberroa.

Bai, ezinbestekoa da. Ez da erraza eleberri batekin barrea eragitea, baina saiatzen naiz. Poztasun handia hartzen dut norbaitek esaten didanean nire eleberri batekin barre egin duela. Halakoak entzutea da idazteak daukan gauza onena.

Jon Iñaki Lasak itzuli du zure eleberria. Gustura gertatu zara zure eleberri bat euskaraz itzulita ikusita?

Bai, konfiantza nuen Jon Iñaki Lasarengan itzulpen gehiago egin dituelako. Horrez gain, literaturaren gaineko irratsaio bat ere gidatzen du. Bestalde, nire eleberri baten euskarazko itzulpena argitaratuta egotea niretzat



I.B.

“Nire eleberri bat euskarara itzulita egotea ohorea da, alemanera baino askoz gehiago”

ohorea da. Ni ez naiz gai euskaraz idazten, baina asko poztu nau. Gogoan dut nire bigarren eleberria alemanera itzuli zutela eta bitxia izan zela, baina euskarazkoak askoz gehiago poztu nau.

Orain dela gutxi Hire liburu-denda itxi dute. Eragin zizun berri horrek?

Bai, asko atsekabetu nintzen. Berez Ubago ahizpekin harreman handia daukat. Hala ere, pena handiena ematen dit beste inork dendarekin ez jarraitu izanak, hutsune oso handia utzi du eta. Zer pentsatu ematen du unibertsitatea, musika kontserbategia eta bestelakoak dituen herriak liburu-denda espezializatu bat ez izateak. Gainera, Arrasaten eta ibarrean idazle asko daude, eta horiei irteera emateko aukera eskaintzen zuen Hirek.

“Zer pentsatu ematen du Arrasate, herri handia izanik, liburu-denda barik egotea”

Orain Eroskiri eskatu behar-ko diogu ibarreko idazleei merezi duten tokia eman diezaiela. Orain, lehen baino gehiago, berrari dagokio ahalegin hori egitea, ibarreko erosleek hemengo autoreen lanak eskuratzeko aukera izan dezaten. Berez, presentzia edukitzea zaila da eta.

Zer beste proiektu daukazu orain esku artean?

Beste eleberri bat prestatzen nabil. Dagoeneko badaukat gidoia pentsatuta, baina oraindik ez naiz garatzen hasi. Lehenengo, bi eleberri hauen promozioa egin behar-ko dut eta gero jarriko naiz zeregin horretan. Aurretik egin ditudan eleberrietako haria eta pertsonaiak berreskuratu eta hortik egingo dut tira. Loari eta aisialdiari zati bat kenduko diet, eta buru-belarri jarriko naiz.

BOTEPRONTUEN

Julen Barandiaran

ORLY TABERNA

XABIER URTZELAI

Julenek ez dauko problemarik 35 urte daukola esateko. Edade ona da hori, baiñe 10 urte gustora kenduko leukela be esaten dau. Orlyko kamarero oin, Ezkutuko eta Arlutzeko barrak be ondo ezaguketan dau. Lau urte die Orly zabaldu euela.

Orly berbiek legatzakin egindako pintxue ekarri dust gogora.

Neuk orly masie ezauketan dot, baiñe horrek ez dauko taberniekin zerikusirik. Taberniek 40 urte inguru eukiko dau. Ama Parisera juen zan lan egittera, eta handik etorri zanian Parisko aireportuen izena jarri eutzen taberniei: Orly.

Zapatuetan ambientie egoten dala entzun dot.

Horretan ahaleginketan gare, behintzet. Azkeneko urtietan Aretxabaletako giruek behera egin dau, eta ointxe gabitz apur bat errekuperetan. Azkenien, Ezkutuk eta Orlyk diskoteka lizentzia daukie, eta goizeko bostak arte zabalik egoten die. Herrixen falta dana da jentie hamen geraketako gauzak antolaketie.

Blog bat be zabaldu dozue (www.goiena.net/blogak/ezkutuo-ly); ze kontetan dozue bertan?

Asier lagune dot, eta harek animau gindduen bloga zabalketan. Astebete daroiegu horrekin, eta hasi gare gauzak poliki-poliki sartzen. Porrak diela, erretratuek diela, tabernetan egongo dien gauzen berri emun... Holakuetarako ibilliko dou bloga.

Kamareruek barra atzetik gauza asko ikusten diela esaten daue.

Bai, izen leike. Kontuen hartu jentie taberna batetik bestera ibiltten dala, baiñe gu leku baten egoten gare gaba dana. Eta normalien jentien pendiente egoten gare.

Eta ze ikusten da Orlyko barra atzetik?

Jentie batera eta bestera... Asko eta asko ligau guran... Beste batzuk bixamona haundireko bidien... Baiñe batez be, giro jatorra da



X.U.

"Jentie kanpora ez jueteko danok batu biherko gitzake, eta jentiek ze gure dauen ikusi"

ikusten dana.

Gabonetan ez zarie aspertuko; gura beste lan eukiko dozue. Hori gure dou ba!

Blogien porrie egin dozue, Gabonetan jente gehixen nox ibilliko dan asmaketako. Bota zeure posturie.

Neuk ezin dot gauza haundirik esan, akaso sorpresa edo tranpa txikiren bat egongo da-eta. Batzuk hasi die buruei bueltaka, baiñe...

Ze da zuon laneko gauza txarrrena?

Tabernari batendako ez dau tabernan bronkaren bat egotie modukorik. Neuretako hori da txarrrena, pertsona bi haserrekietie eta tartien sartu biher izetie...

"Blogien jentiek ataratako erretratuek, porrak, tabernetan ze antolatu biher down... Holakuek jarriko dou"

Eta onena?

Ordu asko izengo die, baiñe lan politte da. Ez da lan mekanikue, eta beti egoten gare jente artien. Hori da polittena.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Debagoienai?

Debagoienai ez dakit, baiñe Aretxabaletak jentie bertan geraketako gauzak antolaketie biher dau. Horretarako, tabernak, Udala, jentie... Danak batu biherko gitzake eta ze gure dan erabaki.

Eta ze dauko ona?

Gauza asko dauko onak.

Ze falta jatzu zeuri?

Seguruenik, ezer be ez.

Eta ze dauketzu sobran?

10 urte.

NIREBIDAIAHURA/ Nerea Arrese

Venezuelara / 2005eko udan.

Venezuelako presidente Chavezen gainean berba egingo genuela hitzartu genuen azken kapituluan. Eta Chavezen aldekoen eta Chavezen kontrario direnen artean zein alde dagoen galdetu dugu: "Guk ikusitakoaren arabera, herritar xumeak dira Chavezen alde daudenak. Eta, neurri handi batean, ekonomikoki egoera onean daudenak dira kontra egiten diotenak". Berbetan jarraitu du Nereak: "Politiko moduan ez zait batere gustatzen; amorratu egiten nintzen telebistan bere berbaldiak ikusten nituenean. Azken batean, ez du ezer argirik esaten, baina bistan dago herria berarekin dagoela. Gainera, badaki herritarrengana mezua nola helarazi, oso abila da horretan. Alde horretatik, ez ditu berba potoloak erabiltzen, herritar xumeek ez liokete eta ulertuko; ondo daki nori egin behar dion berba".

Eta bertatik bertara ikusi ahal izan zuten hori: "Beste inork ez du hango biztanle txiroengatik horrenbeste egin. Medikuntza arloan aurrerapen handiak egin dituzte, eta baita hezkuntzan ere. Adibidez, ikustekoa zen emakume nagusi bat ulu egiten, Chavezi esker irakurtzen ikasi duela esaten. Herriek aurrera egin dezaten proiektuak dituzte abian, eta herritarrek ondo dakite hori".

Nereak, Xabik eta Ekainek onartzen dute Chavezen aldekoek itsu-itsuan jarraitzen diotela euren presidenteari: "Debozio handia diote, eta berari dena barkatzen badiote ere, Chavezen gobernuarekin ez dute berdin jokutzen. Badakite gobernu dela askotan traba gehien jartzen dituen erakundea. Funtzionario mordo dago han, lana azkartu beharrean atzeratu baino egiten ez dutenak, eta horren kontra gogor egiten dute". Han ikasitakoaren gainean ere egin dugu berba: "Aberasgarria izan zen 10.000 kilometrora dauden herritarrek zein ardura dituzten ikustea. Gure ardurak ez dira oso ezberdinak".



"Chavezek ondo daki herriari zelan egin berba, oso abila da"

XABIER URTZELAI



Venezuelakoak, eskoletan esku hartzen.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.





ZER OTE DA 165 FUTBOL ZELAI JARTZEN DUEN IRAGARKI HORI?

Ez da publizitatea egiteko modu berria, baina bai eraginkorra. Hainbat astean zentzu handirik ez duen mezua helarazi, eta jendea zer ote den galdetzen hasi orduko erantzuna bota. 165 futbol zelai jartzen duen kartel horrekin horrelako zerbait gertatuko dela uste dugu; gainera, norbaitek herria horrelako kartelekin josi du. Gu ere ibili gara buruari bueltak ematen, baina ezin ezer garbirik atera. Non egin behar dituzte 165 futbol zelai? Mojategin, behintzat, ez dituzte horrenbeste egingo. Zer sartzen da horrenbeste futbol zelaitan? Uste baino lehenago izango dugu erantzuna.



BESAIDEN 'PIRU'-RI LORE ESKAINTZA EGIN, ETA 65 LAGUN ELKARTU ZIREN BAZKARIAN

Orain dela bi asteko erretratua da hori, Raul Hernandez *Piru*-ren omenaldian ateratakoa. Zapatu goizean, hogeitaz hamar lagun baino gehiago animatu ziren Besaidera igotzen, *Piru*-ri lore eskaintza egitera. Gainera, Besaidera egindako osteratxoarekin konformatu ez eta Udaltzera ere igo ziren banaka batzuk. Eta, jende askoz ere

gehiago elkartu zen eguerdian Hostalean, elkarrekin bazkaltzeko asmoarekin. 65 lagun izan ziren bazkarian, eta bertan egon zirenek esan digute bazkaldu bakarrik ez, parranda ere polita egin zutela. Badira lau urte *Piru* auto istripuan hil zela, Garagartzan. Eta ordutik hona lagunak urtero elkartu dira, Zigorrolako gaztea gogoan izateko.



1955EAN JAIOTAKO HAMABOST LAGUN ELKARTU ZIREN, 'MAKILA' KOADRILAKOAK

Azaroaren 26an elkartu ziren *Makila* koadrilako 15 lagun, guztiak 1955ean jaiotakoak. Urte asko ziren horrelako bazkaria egiten ez zutena, baina ez dugu uste hurrengo egiteko horrenbeste itzarongo dutenik. Hostalean egin zuten bazkaria, eta arratsaldean txikiteo ederrari

ekin zioten. Hala, San Andres aldean amaitu zuten, Avenida tabernan, Athletic taldearen norgehiagoka ikusten. Ez dakiguna da animatzen ibili ote ziren edo ez. *Makila* koadrilan 40 lagun badira ere, 15 dira 1955ean jaiotakoak, eta horiek elkartu ziren. Ze kuriooa.



SAN ANDRESKO BASERRITARREK BADAHITE EGUN HORI ZELAN OSPATU

San Andres eguna ospatzeko, auzoko baserritarrek bazkaria egin zuten Errastiko jatetxean, Bedoñan. Ez da ohitura berria, urtero egiten dute-eta bazkari hori. Aurten 35 lagun elkartu ziren Bedoñan, eta baita bapo bazkaldu ere. San Andres eguna ospatzeaz gainera,

baina, auzotar beteranoei omenalditxoak egin zieten. Hala, Joxe Bixente Etxabek eta Lorentza Altunak jaso zuten txapela eta erramu-lorea. Eta, zenbaterik zenekiten San Andresko baserritarrek urtero elkartzen direla? Kanean dagoen auzoa da, baina baserriak daude inguruan.

Martitzenean estreinatuko da Arrasate Abesbatza Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIARAN

Martitzenean, hilaren 20an, izango da Gipuzkoako Erretiratu Abesbatza VI. Topaketa. 13 abesbatzak esku hartuko dute, eta bakoitzak lau kantu abestuko ditu. Ez da lehiaketa izango, eta guztiek jasoko dute saria. 16:00etan izango da, eta sarrera mugatuak izango dira.

Orain dela hainbat hilabete, Gipuzkoako erretiratu elkarte batzar baten, Debagoieneko ordezkariak abesbatza topaketa ibarrean antolatzeko eskaintza egin zuten. Elkarrekin baietza eman zuten, eta ibarreko ardura-dunek Arrasateko Amaia Udal Antzokia aukeratu zuten, euren esanetan baldintza onenak eskaintzen dituelako.

Behin erabaki hori hartuta, Debagoieneko erretiratu presidente Jose Riviere hara eta hona ibili zen Arrasaten erretiratu abesbatza bat sortzeko, baita lortu ere. "Bidezkoa iruditzen zitzaiz-

dan Arrasateko abesbatza edukitzea. Azken finean, hemen zartzuelak egiten dituzte, hainbat abesbatza daude eta abesteko ohitura handia dago. Are gehiago, horietako asko erretiratuak dira", azpimarratu zuen.

Hainbat abeslarik ondo hartu zuten proposamena eta 50 lagun ez osatutako taldea egin zuten. Goio Ezkibel da zuzendaria; David Artzamendi teklatu jotzailea; eta Francisco Nafarrate ahots solista, hain zuzen ere.

ARRASATEKOAK ITXIKO DU JAIALDIA


Gipuzkoako hamahiru taldek esku hartuko dute jaialdian, eta Arrasatekoak izango du topaketa bukatzeko ardura.

Talde bakoitzak lau kantu abestu beharko ditu, eta horietako batek Gabon kanta izan beharko du halaberharrez. Hortaz, ez dute lehiaketarik egingo, eta ez da irabazle ezta galtzailerik egingo. Hortaz, erakustaldia izango da eta esku hartuko duten talde guztiek jasoko dute saria.

Arrasateko taldeak honako kantuak abestuko ditu: Goikoe-txearen *Argi berria*, Moreraren *L'Amportá*, De Erzillaren *Mesias sarritan agindu zana* eta Dord Jeminen *Fé y esperanza*, hain zuzen ere.

Emanaldia 16:00etan hasiko da, eta ez dute sarrerarik kobratuko, baina sarrerak mugatuak izango dira. Are gehiago, kontuan hartu behar da 13 abesbatzako lagunak eta erretiratu elkarteetako ordezkari batzuek emanaldirako jarlekuak gordeta izango dituztela.

Antolatzaileek aditzera eman digutenez, emanaldi osoak lau bat ordu iraun ditzake. Bi zatitan banatuko dute, eta erdian etenaldi txiki bat egingo dute. Bukeraren, Arrasateko Abesbatzak abestu ostean, gainontzeko abesbatzen zuzendari sariak emanango dizkiete. Orduan arrasatearrak *Agur Jauna* abestuko dute zuzendarien eta ikusleen laguntzarekin. Horrela bukatuko da jaialdia.



Argazkian, iaz Andoainen egin zuten abesbatzen topaketaren irudi bat. GIPIZKOAKO ERRETIRATUEN ELKARTEA

Aurten ere Toki Argi elkarteak egongo da ikusgai herriko jaiotza handienetako bat

I.B.

Aurtengoa Toki Argi erretiratu elkarteak jaiotza erraldoia jartzen duten hamaseigarren aldian da. Horretaz arduratzen dira urtero lagun batzuk. Dagoeneko jarrita dago eta ikusgai egongo da Errege Eguna osterarte, egunero, 11:30etik 22:00ak arte.

Jaiotzak tamaina handia dauka eta 80 bat irudi jartzen dituzte. Horretarako, Santa Marinan dagoen Toki Argi erretiratu elkarteak eraikina erabiltzen dute; barrualde ia osoa betetzen dute jaiotzarekin.

70eko hamarkadan jarri zuten lehenengo jaiotza Santa Marina garaje batzuetan. Jose Luis Inarriak meza esaten zuen, eta jaiotza erraldoia jartzen zuten.


1989an, Toki Argi inauguratu zuten. 1990ean, hasi ziren han jaiotza egiten. Urtero bi lagun irudi bila ibiltzen ziren eta bilduma handia egitea lortu zuten. Are gehiago, tarteka elkarte eskulan tailerren dabilzan lagunak irudiak berritu egiten dituzte.

ALUMINIOZKO OINARRIA

Orain dela gutxi arte, jaiotza egurrezko oinarri baten gainean jartzen zuten, baina erretiratuak ez

zuden oso konforme. Udalar horren gaineko eskaera egin zioten eta azkeneko urteotan aluminiozko oinarria erabiltzen dute. "Askoz txukunagoa da, eta hori baino garrantzitsuagoa, prestakuntzak egiteko gainera igotzerakoan segurtasun askoz gehiago ematen du", aitortu zuten urtero lan hori hartzen duten lagunak. Hala ere, badute kezka txiki bat: "Oinarria handiago balitz, jaiotza handiago egin ahal izango genuke. Hainbat irudi kanpoan utzi ditugu, gordeta".

Jende asko joaten da urtero jaiotza ikustera. Egunez zein gauez ikus daiteke, 11:30etik 22:00etara hain zuzen ere.



11:30etik 22:00ak bitartean egunero dago jaiotza ikusgai. MIKEL LUPATZ

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505
zenbakira

Deiaren prezioa:
0,90 + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintza ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan jasoko duzu beharrekiko duden informazio guztia.

2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde zaharretan daude eta Kl. jantziak bakarrik erabiltzeko baliabide dute Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren alda erabiltzea duden dira.
* Euskarriak: deitu 900 94 02 00 telefonora.
* Vodafone: deitu 123-er. * Movistar: deitu 688-er.

3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, gurekin kontaktatu: smsoinu@smsoinu.com edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin dituztegu abesti eta logoak. Webgure honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezaketen baliabide, juri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Real | REAL
Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolarri (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Kantadako berrak) | AMORE
Bejiak okertuta (Un Ton Toun) | BEGIK
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermín Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (Ei Sukarra) | SUKAR
Elos dicen mierdo, nosotus amen (La Palca) | ELLOS
Enamorado de la muerte (MJP) | ENAMO
Etorikizuna (Etsaiak) | ETORIKI
Ezer ez da betiko (Ker7) | EZER

Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Erzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Noiz) | HEGAL
Ikusi (Oleum Trems) | IKUSI
Ilargia (Ken7) | KEN
Inpernuen ate joka (Gabiak) | INPER
Jokin Urain Hitzak (Bide Erzean) | JOKIN
Kaixo (Urza) | KAIXO
Lau Teiatu (Noiz) | LTOIZLAU
Laztana (Lazten) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kokain) | LOTUTA
Lorekoa (Etxodu) | LORE
Marea Gora (Noiz) | MAREA
Musturrek sartunde (Gabiak) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME

Salve (La Palca) | SALVE
Sami Sami (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizuan (Etsaiak) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATXO
Txus (La Palca) | TXUS
Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maika ta Iñaki) | BEXAMELA
Bokespok (Kopa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapiak) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Egalede eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdere (Aizte / Mader) | MILA
Nirekin (Sozainak) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kopa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Aizte / Mader) | TXANPON
Folk
Arratsalde honetan (Soroan Bela) | SOROTAN

Bai euskarari (Pantao) | BAI
Bakezaleak (Aje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperak (Aje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskarak (Osakori) | EUSKAL
Euskaldun beneraren balada (Osakori) | EUSKALDUN
Ez da posible (Piper Ondoak) | POSIBLE
Furra Furra (Osakori) | FURRA
Galiziara noa (Osakori) | GALIZIARA
Gemitako Arbola (Gontzal Mendib) | GERNIKA
Haika Mutri (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lata) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantao/Paio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Soroan Bela) | MARINE
Nere herriko neska ba maite (Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
Oti Ama Euskal Herria (Lertxundi) | OIAMA

Tirauki (Osakori) | TIRA
Txabamatzalimatu (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Piper Ondoak) | ZAINDU
Herrikoia
Bagarei BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marjaita (Kopa Junkera) | JAJA
San Fermín | MARINE
San Martzialak alardea | SAN MARTZIAL

SOINUAK (2 sms)

Soinu izena | KODEA
1,2,3,4...Real! | REAL
Athletic leup!! | IEJP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu... Aitareta ta semea... | AITAREN
Hartu... Ansar | ANSAR
Hartu... Argentinarra | ARGEN
Hartu... Mexikarra | MEXIKO
Hartu... Miami | MIAMI
Independentzia | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu (pilota) | MILAZU
Txalaparta | TXALA
Txootx | TXOTX

LOGOAK (sms 1)

LAU1 **LAU3**
NUKLEAR **LORA**
SORGIN **ARRANO**

...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com

Angela Estetika Zentroaren Zerbitzu berria Arrasateko Iturriotz 35ean

**Argaltzea eta gorputz tratamenduak
Medikamentu eta orratzik gabe**

• Zelulitisa eta "laranja azala" izeneko efektua dira emakume askok izaten dituzten arazo antiestetiko handienak.

Hautentzat ere badugu irtenbidea: loditasuna, tinkotzea, tonifikazioa, hanka nekatuak eta denetariako gorputz arazoak.

• Lan egiteko modua oso erraza da. Problematika mota hori lantzeko 5 aparatu ditugu. Astean bi aldiz landu ostean irtenbidea ematen diogu (gehienez 8 saio hileko).

• **Tarifa finkoa: 60 € hileko.**
Hilabete honetan, matrikula doan (40 €).

• Eskatuz gero, zure zerbitzura egongo diren bi dietistaren aholkularitza jasotzeko aukera izango duzu.



estetika zentroa
angela

Angela Estetika Zentroaren
Zerbitzu berria:
Iturriotz 35 - 607 59 64 29
Eta betiko lekuan ere bai:
Ferrerias 35 - 943 79 88 23
www.angelaestetika.net

**Gabonetan
oparitu edertasuna**




Tratamendu
bereziak
egiteko
opari-
txartelak

Txokolate bidezko
tratamendua

•
Harri bidezko
tratamendua

•
Eta beste tratamendu batzuk

**Etorri eta informa zaitez
konpromiso gabe!**



ARREGI
ARTE

markoak
obra grafikoa
margolanak
erakusketak
ispiluak

GABON HAUETAN, OPARI EZAZU ARTEA!

Monir. obra grafikoa.

Monir artista ezagunak (Bangladesh, 1943) Madrilen du bizilekua. Bere lanak nazioarteko hainbat sari jaso ditu, haien artean urrezko dominak bienal garrantzitsutan. Espainia mailan, grabatu sari nazionala jaso zuen 1997an.

Abenduaren 16tik aurrera, erakusketa zabalik.



Maalako Errebala, 8. 20500 Arrasate Tel: 943 79 56 44 arregi.arte@gmail.com

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Zein zarzuela antzeztu zuten iaz Arrasaten?
Arrastoa: Andaluziako herri batekin zerikusia dauka.

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESS-ERA!

Codorniu cava estra
75 cl-ko

4,75€ 790 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ESPERANZA ALTUNA arendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Esperanza!

Galderen erantzun zuzena:

Garibaiko aparkalekua.

ARRASATEKOHISTORIA

Arantzazuko eskulturen gaineko zenbait datu

'LA NUEVA BASILICA...' / U.M.

Bide luzea egin zuten Jorge Oteitza eskultorearen eskulturek, Arantzazuko basilikaren aurrealdean ikusi genituen arte. Hain zuzen ere, ia 20 urte pasatu ziren proiektua aurkeztu zuenetik.

1951ko urriaren 8an zera esan zuen Oteitzak: "Nik kalkulatzeko dut eskulturaren aurrekontua ez dela hiru milioi pezeta baino gutxiago izango eta lanek ez dutela hiru urte baino gutxiago iraungo". Hala ere, eskultorearen hasierako asmoa zen oraingoak baino eskultura gehiago egitea. Baina basilikaren arkitektoek dezente murriztu zioten proiektua, eta, horren ondorioz, Oteitzak proposatutako aurrekontua 200.000 pezetaraino jaitsi zuten.

Apostoluen eskulturari dagokionez, berriz, basilikako ordezkariak galdetu zien ea posible zen 14 irudi ipintzea. Hala, 12 apostoluez eta Jesukristoz gainera, San Frantzisko Xabierren irudia sartu gura izan zuen, haren 400. urteurrena zelako.

Kontuak kontu, obrek izandako atzerapenek eragina izan zuten Oteitzaren eskulturetan. Besteak beste, Orioko eskultura-



1969ko ekainaren 12 eta 17aren artean ipini zituzten apostoluak basilikaren aurre aldean.

'LA NUEVA BASILICA DE ARANTZAZU' LIBURUA

gileak sinatu beharreko kontratua nahikotxo atzeratu zen. Eta seguru aski atzerapen horren eraginez, Gotzaindegiak "muturra" sartu zuen Arantzazuko proiektuan, eta, Oteitzak proiektua aurkeztu eta bi urtera, Gotzaindegiak debekatu egin zituen eskulturak eta baita ere

*1951n aurkeztu
zituen Oteitzak
zirriborroak; baina
1966ra arte ez zuen
lortu onespina*

Arantzazurako pentsatuta zeuden margolanak. Hain zuzen ere, 1954an lanak geldiarazi zituen eta 1955ean debekatu egin zituen.

ERROMARA GUTUNA

Egoera hartan 1963a iritsi zen. Urte hartan hil egin zen Donos-

tiako gotzain Jaime Font Andreu. Haren ordezkari izendatu zuten Lorentzo Bereziartua gotzaina. Era berean, Juan XXIII.a aita santua ere hil zen eta haren lekua hartu zuen Pablo VI.ak.

Izendapen haiek egiten zituzten bitartean egin zituen Oteitzak eskulturak.

Baina oraindik ez zuen bainetik ipintzeko. Hala, Donostiako gotzaina hiltzen zegoela, Erromara errekurtsoa bidali zuten, eskulturak debekatzearen erabakiaren kontra. Handik erantzun zuten gotzainak zuela erabaki hura hartzeko eskumena. Eta gotzain berriak, Lorentzo Bereziartuak, onetsi egin zuen Oteitzaren proiektua.

EZUSTEKO HANDIA

Baina ez zuen luze iraun onespina hark. Are gehiago, 1964ko maiatzean onespina eman eta uda hartan bertan erretiratu egin zuen. Gainera, gotzainak eta ingurukoek proposatu zuten Oteitzaren eskulturak aldatzea gizakiarekin zerikusirik ez zuten beste irudi batzuegatik. Baina Oteitzak hasierako ideia defendatu zuen. Edozelan ere, 1966ra arte ez zuen lortu behin betiko onespina. Eta 1968ra arte ez zituen lanak hasi Arantzazun. 1969an bukatu zituen.



PROFESIONAL *liberalak*

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK
Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA
Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

BITART

**Larraitz Ugarte
Maider Morras**

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 16a

405. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

ELKARRIZKETA

ITZIAR PILDAIN ETA NEREA IZARRA/GAZTELEKUKO HEZITZAILEAK

“Hilaren 26tik 30era goiz eta arratsalde izango dituzte ekintzak gaztelekuan”

MIRARI ALTUBE

Urretxukoa eta Ermukoa izan arren, urriaz gero asteburu guztietan egoten dira Aretxabaletan. Gaztelekuko hezitzaileak dira, eta Gabonetako oporretarako antolatu duten Aste Gaztearen berri eman gura diete gazteei.

Gaztelekuak dagoeneko badauka izena, ezta?

Bai, gazteek lehiaketa antolatu zuten eta zazpi izen proposatu zituzten. *Atxagazte* aukeratu zuten bozketa bidez.

Logotipo lehiaketa ere egin gura zenuten...

Bai, baina ikastetxeetara bideratzea erabaki dugu; hala, gazte guztiak hartuko dute parte.

Gazte asko etortzen da gaztelekura?

Bai, 30 inguru etortzen dira aste bukaera guztietan.

Neskak gehiago dira?

Ez, mutilak dira gehiago gaztelekuan bertan, egoten direnak filmak ikusten edo beste barik egonean. Neskak, osteran, antolatzen ditugun ekintzetan hartzen dute parte: dantza eta Capoeira ikastaroetan edo argazki lehiaketan.

12 eta 17 urte bitartekoendako zabaltzen dituzue ateak; zein adinetakoak datoz gehien?

13-14 urtekoak, koadrilaka etortzen dira.



M.A.

Gabonetarako Aste Gaztea antolatu duzue. Zergatik?

Gabonetan opor egun asko dituzte nerabeek eta ekintza gutxi edo bat ere ez. Hortaz, hutsune hori bete gura dugu.

Eta zer izango dute?

Hainbat ekintza. Abenduaren 26tik 30era bitartean goiz eta arratsalde izango dute zeregina: kamiseta tindaketa, patin ikastaroa, malabare ikastaroa eta futbito txapelketa, beste batzuen artean. Hilaren 27an Gasteizeko izotz pista egingo dugu irteera eta 30ean patata tortilla lehiaketa

lehenengo eta bazkaria gero.

Izena eman beharko dute aurrez, ezta?

Bai, abenduaren 23an bukatuko da izena emateko epea.

Eta urtarrilean ere izango dute ekintzarik?

Bai, urtarrilaren 2tik 4ra arratsalde bakarrak zabalduko dugu. Mahai jokoen txapelketa izango dute lehenengo bi egunetan eta hilaren 4an sorpresa eguna jarri dugu. Helburua da gazteek antolatzea egun hori, baina ez ditugu oso motibatuta ikusten eta orduan egun lasaia izango da.

II. Gazte Egunak herriko gazteak elkartuko ditu

M.A.

Atxabaltako Gazte Ekimenak eta Segik II. Gazte Eguna antolatu dute. Bihar, abenduak 17, egingo dute eta hainbat ekintza antolatu dituzte; tartean, bazkaria, umore saioa eta kontzertuak. Biharko eguna girotzen hasteko gaur DVD emanaldia eta emakumeen sexu fantasien gaineko tailerra daude.

Iaz, Gabon inguruan, truke azoka antolatu zuen Gazte Ekimenak. Eguna borobiltzeko bazkaria, barrilada eta kontzertuak antolatu zituzten, eta aurten jarraipena eman diote jai hari Gazte Eguna bataiatuta.

BAZKARIA ETA KONZERTUAK

Gaur, egubakoitza, hasiko dira biharko eguna girotzen. Hala, emakumeen sexu fantasien gaineko tailerra egingo dute 18:00etan, eta DVD emanaldia 19:30ean. Udaletxe zaharrearantz izango dira.

Bihar, zapatua, emakumeen sexu fantasien gaineko tailerrari bukaera emango diote 11:00etan hasita. Ostean, trikopoteoa eta eguerdian bazkaria izango dituzte. Bazkalosterako Jon Plazaola eta Eneko Barberena hurreratuko dira eta umore saioa eskainiko diete elkartutakoei. 18:00ak inguruan gazte kalejira egingo dute eta barrilada gero. Eguna bukatzeko kontzertuak antolatu dituzte Urbaltz eta Ezkutu tabernetan: Enboskada eta Gazte Ekimeneko lagunek osatutako taldea.

JAI ARRAKASTATSUA

Iaz 60 bat lagun elkartu ziren bazkarian eta aurten gehiago izatea gurako lukete antolatzaileak. Truke azokak ez zuen arrakasta handirik izan, baina sortutako giroa paregabekoa izan zen, eta aurten egitarau zabalagoa eskaini diete herriko gazteei. “Elkartzen gareno elkartuta ere giro onean ospatzea dugu helburu”, diote Gazte Ekimeneko kideek.

LABUR

Bidezko merkataritzako denda jarriko du Hiruatxek gaur, hilak 16, udaletxe zaharrearantz

Bidezko merkataritzako produktuak saltzeko denda jarriko du Hiruatxek gaur, udaletxe zaharrearantz, 17:00etatik 21:00etara. Elikagaiak eta artisauek ekoiztutako produktuak eskainiko dituzte.

Bestalde, Hiruatxek Ekuatore Gineako Mitemele herrian hasi berri du azken proiektua. Oilaskoak hazi eta hiltzeko kooperatiba egingo dituzte. Proiektua zabala da, baina Hiruatxek 100 mila euro batzeko ardura hartu du herritarren laguntzarekin.

Fubia
1947 - an Fundetua
OINETAKOAK

Aretxabaleta
Mitarte kalea 14
Tel.: 943 79 16 00

Arrasate
Biteri etorbidea 1
Tel.: 943 79 66 53

Amaiak eta Bikenek Gabon zoriontsuak opa dizkizute!

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 17
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 18
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

- Almen 943 71 49 07
- ARETXAGAZETA 943 79 86 21
- Faxa 943 77 18 54
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institua 943 79 79 00
- Kiról etxea 943 71 26 28
- Kultura etxea 943 71 10 27
- Gazteria saila 943 71-10 27
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
- KZGunea 934 79 94 44
- Liburutegia 943 71 18 62
- Loramendi EE 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Mankomunitatea 943 79 30 90
- Murukixo ME 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Osasun etxea 943 71 19 59
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Basabeazpi Ikastola 943 71 21 18
- Taxi geltokia 943 77 12 64
- Udal Bulegoak 943 71 18 62
- Udaltzaingoa 943 71 18 63
- Urats Gain 943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

- SOS Deiak 112
- Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze Gorria 943 76 55 76
- Larrialdia 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Lehenengo saria jaso zuen Akordeoi Orkestrak

M.A.

Lehenengo saria eskuratu zuen Arrasateko Akordeoi Lehiaketan Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak abenduaren 4an. Orkestrei dagokien sailean jardun zuen eta aurkeztutako bakarra izan arren saio dotorea eskaini zieten epaimahiko kide eta entzuleei. Zailantza barik eman zioten saria.

Talde bakarra aurkeztu arren epaimahaiak saririk eman barik uzteko ahalmena zuen. Hala ere, lehenengo saria eman zieten aretxabaletarrei, saio bikaina egin zutelako.

30 MINUTUKO SAIOA

Urduritasuna albora utzita jo zuten akordeoia Juanjo Orobengoaren

zuzendaritzapean. 14 eta 28 urte bitarteko 20 kidek osatzen dute taldea eta akordeoi joleez gain perkusio joleak daude. Hiru lan eskaini zizkieten Amaia Antzokian elkartutakoei, 30 minutuko saioa. Ez zuten egun askorik izan entseguak egiteko, baina hiru lanok ondo ikasita eraman zituzten eta ederto burutu zuten lehiaketa.

BIHAR, KONZERTUA PARROKIAN

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak diskoa grabatzeko asmoa dauka. Hamahiru urteko lana borobiltzeko modua izango litzateke eta datorren urtean egin gurako lukete. Hori baino lehen eta Arrasatera joateko tarterik izan ez zutenek herrian bertan daukate orain aukera. Bihar, zapatua, kontzertua eskainiko du orkestrak parrokian, 20:30ean.



ARTXIBOA

Entsegu gutxi egin arren saio dotorea eskaini zuen Akordeoi Orkestrak Arrasaten.

LABUR

Gabonetako kontzertua egingo dute musika eskolako ikasleek eguaztenean parrokian

Leizarra musika eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute eguaztenean, abenduak 21, 18:30ean, parrokian. Panderoa, trikitixa, saxoa, zeharkako txirula, klarineta, perkusioa, tronpeta, biolina, akordeoia, gitarra eta txistua joko dituzte ume eta gazteek entzun gura duten guztien aurrean.



90 urteko hamar bazkideri omenaldia

Santa Luzia eguna aprobetxatu zuen Basotxo Erretiratuen Elkarteak 1915ean jaiotako bazkideei omenaldia egiteko. 10 lagun izan ziren, zazpi emakume eta hiru gizon; Luzio Oteizak hain zuzen egunean bertan bete zituen 90 urte. Pedro Mari Zubizarreta presidenteak egin zien ongiatorria. Omenaldi ostean txokolate beroa hartu zuten hurreratutako bazkideek. /M.A.

IAUSQO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistak
inprimakiak

EGUZKIGRAF
inprimategia

1979urtetik zure zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

Aratuste jai hobeak antolatzeko ahaleginetan dabilta koadrilak

M.A.

Otsailaren 26an ospatuko ditugu datorren urtean Aratusteak, baina koadrilak hasi dira antolatzeko lehenengo pausoa ematen. Udalarekin egin dute berba eta hainbat eskaera egin, tartean herri bazkaria antolatzea eta Aratusteetako martitzena girotea.


Bilera egin zuten Azpigarri, Zelabaixota, Moñordak eta K23! koadriletako ordezkariak Kultura Sailarekin. Aratuste jaiak bultzatu eta hobeto antolatzeko asmoarekin hainbat proposamen aurkeztu zizkioten koadrilek. Mozorroak gertatzeko lokalak, aurreko zapatua girotzeko ekintzak, Aratuste domekan herri bazkaria, martitzena girotzeko luntxa ilunkaran eta mozorro onenei sari hobeak izan ziren eskatutako batzuk.



Aratusteak jai garrantzitsuak dira herrian, eta hobeto antolatu gura dituzte koadrilek.

Kultura Saila ados azaldu zen egindako eskaera gehienekin eta Xabier Sarasua zinegotziak herriko jai garrantzitsu horiek girotzeko eta bultzatzeko egindako ahalegina eskertu

zient koadrilei. Datorren urteko aurrekontuetan proposamen gisa aurkeztu dituzte eskaerok. Aurrekontuok onartu arte itxaron egin behar guztiak onartu dituzten jakiteko.



Xabi Lezetak irabazi zuen Untzillara igoera

Zelabaixota eta K23! koadriletako 26 lagun igo ziren Untzillara bizikletan joan zen zapatuan. Iaz antolatu zuten lehenengo aldiz, eta igo aurretik herrian bertan eman zituzten buelta pare bat. Ibai Zangituri bizikleta apurtu zitzaion eta ezin izan zuen bukatu; gainerako guztiak ailegatu ziren Untzillara. Lehena Xabi Lezeta izan zen. Basabe jatetxean bazkaldu zuten guztiak. /M.A.

LABUR

Oraintsu berritutako organoarekin kontzertuak eskainiko dituzte gaur eta hilaren 30ean

Gaur, egubakoitza, Mari Carmen Azeitia organo jole zumaiarra etorriko da kontzertua ematera parrokiara. 19:00etan izango da, eta zazpi lan eskainiko ditu.

Abenduaren 30ean, osteran, Jose Luis Franzesena azeitia-rra etorriko da kontzertua ematera.

Abesbatzendako konposaketa ugari egin ditu, eta hain zuzen Aretxabaleta Abesbatza izango du lagun oraingoan. Bost abesti eskainiko dituzte, tartean Händelen *Alleluia* eta Mozarten *Koroatze meza*. 19:00etan izango da ekitaldia.

EHNA tramitatuko dute domekan

Joan zen zapatuan egindako moduan Bai Euskal Herriari taldeak EHNAk tramitatuko ditu domekan, abenduak 18, udaletxe zaharrean 11:00etan. Gainera, EHNA duten guztiak egiten die dei EHNA erabiltzeko eskubi-dearen aldarrikapena sinatzeko.

Ez dute mezarik esango hilaren 19an eta 20an

Elkarteko Adiskidetze sakramentua ospatuko dute hilaren 19an, Eskoriatzako parrokiari eta 20an Aretxabaletakoan, 19:00etan. Hori horrela, hileta elizkizunik egon ezean, ez dute mezarik esango bi egun horietan herri bietan.

Otarreak zozketatu ditu Loramendi EEK

Aloze eta Sohütako ikastolen aldeko bi otarre zozketatu ditu egunotan Loramendi EEK bazkideen artean. Koldo Iriartek eta Jesus Mari Ganboak jaso dituzte Zuberoako produktuekin betetako otarreak, biak Almen ikastetxeko irakasleak.

Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11. • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

J.J. IRURE
ITURBINTZA

URA GASA KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA
943 793 187

Karlos

Harakina

Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABALETA


IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

ANTREBENTZIAEZPADA/ Gabonetan loterixarik erosten dozu? Kanpotik ekarri izen dutzue?



ANTONIO GALLEGO
Langabetue



TERE ARTANO
Langillie



GORKA ZUBIZARRETA
Langillie



JOBITA ARTABE
Langillie



LIONEL ARQUERO
Langillie



OSANE AIASTUI
Langillie

Gutxi, lagun artien hartzen ditudugu 10 dezimo eta bakoitzak 25 euro jarten dou. Bertan erosteko ohiturie daukou, nahiz eta aurten lagun batek Errioxatik ekarri dezimo bat.

Bai, apur bat hartzen dot. Lantegiko ofiziñan batek hartzen badau bestiok be hartu egin biher dou, badaezpada... Aurten kanpokue be badauket, Sort herrixen erosittekue, hain zuzen.

Ez, ez dauket ohitturarik eta ez dot loterixarik erosten. Lagunekin zeozer jokatzen dot, lagunek eskatute, baiñe ez Gabonetan. Ez jat bape gustetan eta konszienteki ez dot erosten.

Gutxi, Gabonetan zeozer, baiñe gutxi. Seme-alabakin batera erosten dot, tokau ezkeru danon artien banaketako. Baten bat kanpora fanez gero ekarteko esan izen dutzou.

Bai, bezeruei erregaletako ekarten dot hillen 22ko loterixie. Gaiñera, beste leku batzuetakue gustetan jakue eta kanpotik ekarri izen dot. Ez jaku sekule tokau, eta penie da gero...

Bai, Gabonetako loterixie beti hartzen dot zeozer, bai hillen 22kue, bai umiena. Kafie hartzera faten nazen kafeterixan erosten dot eta lanlekuko lankidion artien be hartzen dou.

TXALOAKETATXISTUAK




TXALOAK ARRAPALA KOMENTUKO ELIZARA SARTZEKO Eskailerak bakarrik zituen oraintsu arte Agustindarren komentuko elizaren sarrerak, hiru eskailera. Orain aste batzuk ezkeru, baina, arrapala jarri diote. Hala, gurpildun aulkian dabilzanak, makuludunak eta umedun aulkia daramatenak lasai asko eta inolako oztopo barik sartuko dira hemendik aurrera. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Tokiko Agenda 21en gaineko ikerlana egin zuen Udalak

Aretxabalearen gaineko ingurumen txostena egin zuen Aholkularitza eta Ikerketa Ingurune SL enpresak. Herria hamaika arlotan banatu zuten eta ikertu: energia, ura, garraioa... Ingurumen zinegotzi Xabier Etxebarrieta pozik azaldu zen emaitzarekin, jasangarritasunaren bidean geundelako.



ASTEKODATUA

40

SARRERA SALDU DITUZTE BERTSO TXAPELKETARAKO

Loramendi EEk saldu ditu Bertso Txapelketarako sarrerak, 40 gutzira. Gehienak herritarren artean saldu dituzte baina kanpotik ere etorri dira. Askok telefonotik eskatu zizkieten gordetzeko.

BESTEKEESANA

“ Ezohikoa den gauza bat gertatu da bertsoaritzan azken hogeitun urteotan. Bere kultur esparrua autoeratzeko intuizioa mamitu du bertso-munduak. Tresna bat sortu zuten, eragile guztien bilgune: elkar-tea. Eta elkar-te horretan, auskalo ze kausalitate eta kasualitategatik, toki askotan eskas dagoen molde bat taxutu da. Etorkizun-ikuspegiak eraikitze gaitasuna (bisioa), epe desberdineko helburuak kateatzeko gaitasuna (estrategia), eta ekiteko gaitasuna. Eta hiru horien artikulazioarekin gauza bat egin du bertso mugimenduak: gidatu. Zuzen edo oker; beste indarrei (merkatu joerei, administrazioaren ahalmenei, hedabide-monopolioaren nahiei, gatazka politikoaren baldintzamen- duei) men egin gabe ontzia gidatu.

JON SARASUA
‘Larrun’ aldizkaria/05-12-11

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Durangon erosi eta...

Pasau da liburu eta disko azokie, eta Durangok bere onena emun dau aurtengoz. Kulturzaletasun eta kulturkontsumo egunek pasau die. Ohituriek marketan dauen moduen, asko izengo gitzen urteroko zitara agertu barik geratu ez garenak.

Euro barik, baina poltsa bete genero ekarri dogu aurten be etxera. Izen be danetik eta prezio danetako produktuek topau leikien Goenkale, Barrenkale edo Artekalen. Dana erosteko astixe bai, baina leiruteko astirik ez da egoten gero. Hau panoramiala!!!

Azokiek agur esan dau, eta balorazinuek egiten hasteko ordu da antolatzailek. Aurreko urte batzuetan baino jente gutxiau fan dala eta arduetute daz Gerediagakuek. Baina azoka haundixe txiki geratu da zenbait momentutan. Zer pasetan da?

Ni fan nintzenien trankil ibilteko aukerie euen hango

kaliatan. Trabarik barik eta gustora ibili nintzen liburu eta disko artien galdute; hari begiretu eta hori ikutu. Musika sailien talde barri ugari ikusi nintzen eta hor benetan galdute topau nintzen. Ez bat eta bi, asko eta asko ezagutu bez.

Liburu batzuen izenak ahoz aho dabitzen ondio be geure artien. Izendakuek eta izengo dienak. Idazliek jo eta su ibili zien euren markie izten aurrera eruendako liburu danetan. Tintarik geratu ete jakue Otegi, Maia, Toti, Cano eta gainontzekuen boligrafuei?

Datorren urtien be izengo da Durango; liburuz eta diskoz beteta izengo ditudugu zain Goenkale, Barrenkale edo Artekale. Zuei agur esateko, igez bertan erosi nauen liburu batetik atara doten esaldi bateaz egingo dot: *ogi gogorrari zorroztu hagiñe, ta gaiztuei beti ataramiñe!* (Aitor Fresnedo, Ataramiñe04).

“Aurreko urte batzuetan baino jente gutxiau fan dala eta arduetute daz Gerediagakuek”

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 16an / 235. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Herriko merkatariek Gabonetako kanpaina abiarazi dute, bigarren aldiz

IKER BARANDIARAN

Herriko merkataria eta zerbitzuek Gabonetako kanpaina abiarazi dute astean. Bezeroen artean hainbat txartel banatu dituzte eta Errege Eguna-ren bezperan zozketa egingo dute. Irabazleak herrian gastatu beharreko 1.500 euro eta afaria jasoko ditu.

Azkeneko urteotan Eskoriatza-ko saltzaileek eta bestelako zerbitzuak eskaintzen dituztenek apustu gogorra egin dute bezeroei esker ona emateko eta eskoriatzarrek herrian erosketak egin ditzaten bultzatzeko.

Joan den urtean, Gabonetako kanpaina egin zuten lehengo aldiz eta oso harrera ona izan zuen. Zozkatu zuten saria honako hau zen: herriko saltokietan gastatu beharreko 1.000 euro eta afari bat, hain zuzen ere. Bezeroek oso ondo hartu zuten ekimena, eta saltzaileak ere gustura gelditu ziren.

AURTEN SARI HANDIAGOA

Aurten, berriz, merkatariek esfortzua egin dute sari handiago eskaintzeko, eta lortu dute: 1.500 euro eta afaria emango diote sarituari.

Txartel horiek ez dituzte egingo gastuaren arabera emango. Horren ordez, saltzaileek bezeroen artean banatu dituzte.

Herrian ez dago berezko dendari edo merkatarien elkarterik, baina antzeko funtzionamendua dute. Izan ere, urtean hainbat alditan batzen dira, eta hainbat ekimen antolatzen dituzte.

Orain dela gutxi, azaroaren 19an hain justu, galako afaria egin zuten 22 merkatarik. "Herria apur bat girotu eta dotoretasuna emateaz gain, afari gure artean egitasmoak adostu eta eztabaidatzeko erabili genuen", azaldu ziguten.

URTEAN, LAU EKITALDI NAGUSI

Hain zuzen ere, urtean lau ekitaldi nagusi egingo dituzte merkatariek: Aratusteetan, urtero,

bazkaria egingo dute, eta txantxa giroan zeresana ematen dute herrian; udaberrian, loreak oparitu eta saldu egingo dituzte herriko plazan; udazkenean, galako afaria; eta Gabonetan, zozketa berezia.

Bezeroei banatutako txartelekin zozketa egingo dute. 1.500 euro eta afari bat izango da saria

Aspaldi honetan herriko merkatariek ahalagin berezia egingo dihardute bezeroak saritzeko



Argazkian, estankoko langile bat bezero bati Gabonetako txartela eskaintzen.

Eguenero, autobidearen gaineko arreta zerbitzua

I.B.


Udala eta Bidegi hasiak dira autobidearen gaineko batzarrek egingo. Egindako batzarrean, hainbat erabaki hartu zituzten. Besteak beste, adostu zuten eguenero Euroestudios enpresako segurtasun arduradunak arreta egingo diela autobidearen gainean kezka dituztenei, 17:00etatik 18:00etara.

Hori da Udalak eta Bidegi hartutako erabakien artean garrantzitsuenetako bat. Ezagun da autobidearen gainean kezka handia dagoela herrian, eta zaila dela Bidegirengana jotzea. Hori guztia zelanbait bideratzeko, Bidegi eta Udalak erabaki zuten astean egun baten herritarrei arreta ematea. Hortaz, eguene-

ro, lanen zuzendaritza daraman Euroestudios enpresako segurtasun arduradunak arreta egingo die gura duten herritarrei, 17:00etatik 18:00etara, udaletxean. Horren barruan sartuko dira desjabetzeak, leherketek eragindako kalteak eta beste.

UDALAK JARRAIPENA EGINGO DU

Udalak aditzera eman du herritarrek aurkeztutako kezka, eskaera eta kexa horien guztien jarraipena Udalak berak ere egingo duela. Horrez gain, eza-gutzera eman zuten norbaitek Udalaren bitartez eskaera, kexa edo bestelakoak helarazi gura baditu, Udala prest dagoela bitartekari edo igorle lana egiteko. Horretarako, prest dituzte agiri eredu batzuk. Gura duenak jo dezala informazio eske.



TAFYD eta irakasle eskolako ikasleak Alemanian

Lanbide Heziketan, TAFYD eta HUHEZIn ikasle direnak Alemanian izan dira. Hango Alice-Salomon institutuarekin elkartrukea egin dute. 18 eta 20 urte bitarteko hementzi ikasle joan dira.

Ekimen hori Comenius proiektuaren barruan dago, eta helburua izan da bi herrialdeetako kirol politika, kirol ekintza eta kirol begiraleen lan esparruak aztertzea. Alemanian hogeita sei ikasleekin elkartrukatu dituzte esperientziak.

Bi astean Alemaniako ikasleen etxeetan bizitzeko aukera izan dute, eta hango kultura eta hizkuntza ezagutu dituzte./ I.B.

ELKARRIZKETA

NAIARA ERRASTI/DISEINATZAILEA

*"Kristala eta argazkia erabili ditut,
eta horiei diseinu grafiko aplikatu"*

IKER BARANDIARAN

Naiara Errasti eskoria-tzarrak urte dezente darama isilean hainbat lan egiten. Orain dela gutxi Mario Padillaren omenezko lana egin zuen. Horrez gain, diseinu grafiko, margolanak, ilustrazioak eta beste egiten ditu.

Ezagutzen duzu Mario Padilla?

Bai, baina bere lanarengatik, txistularia delako eta herrian egin duen guztiarengatik. Berarekin lehenengo aldiz egon nintzen argazki batzuk egin nizkiolako. Hala ere, familian badago berarekin txistua jo duenik.

Ilusioa egin zizun bere omenezko lana egiteak?

Bai, oso gizon langilea eta umila delako, eta lana zelan egiten duen gustuko dudalako. Horrez gain, musika-zalea ere banaiz, eta horren guztiaren gaineko lana egitea oso interesgarria iruditu zitzaidan.

Herriko artista batzuen artean zure lana aukeratu zuten...

Bai, Udalak herriko artista talde txo batera jo zuen, eta hiru lagunok osatzen dugu talde txoa. Lan bana aurkeztu genuen, eta Udalak nirea aukeratu zuen.

Idea oso argi zenuen ala asko garatu behar izan duzu?

Hiru ideia artean zalantza izan nuen. Besteak beste, hiru dimentsiotako eskultura bat egitea aztertu nuen. Azkenean, kontuan hartu nuen lana urbanizazio baten barruan egongo zela, eta beste zerbait bururatu zitzaidan. Hala ere, urbanizazioa zertan geldituko zen zehatz jakin gura nuen arren, oraindik bukatu barik zegoen, lana aspaldi enkargatu zigutelako.


Lurra egokia iruditu zitzaidan lana ikusteko, zapaltzeko... Argia erabili nuen, lana egunez eta gaitz ikusi ahal izateko. Azken finean, kristala eta argia izan dira elementuak eta horri guztiari diseinu grafiko aplikatu diot lana borobiltzeko.

Diseinuko lanak egiteaz gain, ze beste arte-sorkuntza egiten duzu?

Arte Ederrak ikasi nituen, baina horren ostean Diseinu Grafiko ikasi nuen, besteak beste. Aspaldian diseinu grafikoaren alorrean egiten dut lan, batez ere. Hala ere, marrazkiak eta ilustrazioak ere egiten ditut. Batzuetan enkarguz, baina kasu gehienetan niretzat margotzen dut.

Lehiaketetan aurkezteko ohiturarik badaukazu?

Oso gutxi. Adibidez, Bilboko Aratusteetako eta San Fermine-tako horma-irudien lehiaketetan



*"Mario Padillaren
eta musikaren
gaineko lana egitea
oso interesgarria
iruditu zitzaidan"*

*"Lehiaketa baten
esku hartzeko asko
motibatu behar nau.
Gaiak zeresan
handia dauka"*

esku hartu izan dut, baina ez dut inoiz ezer irabazi. Hala ere, ez naiz lehiaketak egiten dituzten adi egoten. Ez daukat esku hartzeko ohitura handirik, lehiaketak berak motibatu behar nau. Nire iritziz, motibatze oso garrantzitsuak izaten dira gaia eta sariak ere bai. Askok lan handia izaten dute, eta hori zelanbait ordaindu edo saritu egin beharra dago.

Zure margolanak erakusteko ohiturarik baduzu?

Ez handirik. Aspaldi egin nuen margolanen erakusketa bat herrian. Hala ere, badut gogoia etorkizunean beste bat egiteko. Baditut etxean hainbat lan gordeta. Guztiak batu eta aukeraketa ona egin beharko nuke. Denbora emango dit, baina egingo nuke.

Besteak beste, espazio diseinua egiten duzula aipatu izan

duzu. Zer da zehazki espazio diseinua?

Gasteizen master bat egin nuen espazioen diseinua eta antolaketa egiteko. Ferietan, erakusketetan gauzak zelan antolatu eta zelan aurkeztu asmatzen dut. Argiztapenarekin eta eszenografiarekin asko jokutzen dut. Arlo horretan hainbat lan egin ditut herrian eta beste leku batzuetan, eta interesgarria da.

Hortaz, ofizioa zaletasuna daukazu ala alderantziz?

Alderantziz. Txikitatik oso argi nuen marraztea oso gustuko nuela, eta oso gaztetan erabaki nuen Arte Ederrak edo Arkitektura ikastea. Biak oso gustuko ditut. Azkenean, Diseinu Grafiko ikasten nabil. Ez da arte sorkuntza zehatza, baina badu zerbait, eta gustatzen zait.

LABUR

Gaur, egubakoitza, Nabarralde elkartekoen Nafarroaren gaineko berbaldea egingo dute

Gaur, egubakoitza, izango da, 22:00etan, Ibarraundi museoan. Nabarralde elkarteko Mikel Sorauarenek *Historia de Navarra: el estado vasco* berbaldea egingo du. Hain zuzen, Nabarralde elkarteak lan egiten du Nafarroaren historia berreskuratzeko. Solauarenek berak hainbat liburu argitaratu ditu: *Navarra y el mito constitucional*, *¿Es Navarra una nación?*, *Fueros y mejoramiento...* Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu du berbaldea.

Eguenetik zapatura bitartean bigarren eskuko azoka, gazte batzarraren eskutik

Gazte batzarra bigarren eskuko azoka prestatzen dabil. Hilaren 22an, eguena, 23an eta 24an egingo dute. Lehenengo bi egunetan goizez eta arratsaldez eta azkenekoan, goizez bakarrik. Besteak beste, arropak, CDak, liburuak eta jostailuak batzen ibili dira, eta salgai jarriko dituzte kultura etxeko gela baten -lehenengo KZgunean-. Azokaren helburua da etxean erabili barik dauden gauzei irtenbidea ematea, birziklapena bultzatzea eta Gabonetan diru gutxi-ekin opariak egiteko aukera ematea. Orain dela bi urte, beste azoka bat egin zuten, baina oraingo handiagoa izango da.

Iñigo Urrutiarena izan da Christmas Digital saritua

I.B.

Iñigo Urrutiaren marrazki animatua izan da Eskoriatzako Christmas Digitalen I. Lehiaketan saria jaso duena. Guztira 36 lan aurkeztu dituzte lehiaketan, eta guztiak erabilgarri daude gura duenak mezu elektronikoen erabil ditzen.

Iñigo Urrutia eskoriatzarrak irabazi du Christmas Digitalen I. Lehiaketa. Urrutiak hainbat sari jaso ditu aspaldian: Arrasateko Santamasetako horma-irudiaren lehiaketa berak irabazi du eta Arrasateko San Juanetako saria ere berak eskuratu zuen.

Urrutiak marrazki animatua egin zuen Christmas Digitalen Lehiaketarako, eta hori izan da epaimahaiak gustuko izan duena. Horregatik, 300 euroko saria jasoko du Urrutiak.

Udalak aditza eman du honako alderdiak neurtu dituztela aurkeztutako lanen artean aukeratzeko: Gabonak zoriontzeko mezua argitasunez ematea;

mezua erabilgarria izatea, hau da, posta elektronikoz bidaltzeko pisu handirik ez izatea; erabilitako euskara zuzena izatea; eta orijinaltasuna, hain zuzen ere.

POZIK HARRERAREKIN

Udalak aditza eman du oso pozik daudela lehiaketak izan duen harrerarekin. 14 lagunek eman dute izena, eta guztira 36 lan aurkeztu dituzte. Gehienak eskoriatzarrak izan diren arren, Donostiatik, Urretxutik, Eibartik, Aretxabaletatik eta Bergaratik ere heldu dira lanak.

Horrez gain, Udalak azpimarratu du aukeraketa zaila izan dela, eta oso lan txukunak jaso dituztela.

CHRISTMAS DIGITALAK, ERABILGARRI

Gura duenak Eskoriatzako Udaleko webgunera (www.eskoriatza.net) sartu eta aukera izango du gustuko duen postala erabili eta Gabon zoriontsuak opa gura dizkionari bidaltzeko. Ikusgai eta erabilgarri daude lehiaketara aurkeztu diren Christmas guztiak.



MARI KARMEN ARRIETA

Iñigo Urrutia pozik dago marrazki animatuak izan duen harrerarekin.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko abenduaren 16a / 176. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Su-gorrina atzemateko egindako laginen emaitzak negatiboak izan dira

UBANE MADERA

Atzo, eguena, ziren su-gorrinaren gaineko batzarra egiteko udaletxean. Ezustekorik ezean, Diputazioko teknikari bat etortzeko zen herritarrei jakinaraztera hasieran atzemadako lau fruta-arbolek izan ezik, herriko beste arbola batek ere ez duela gaixotasun hori hartu.

Joan den uztailaren 4an jakinarazi zuen ofizialki Arabako Foru Aldundiak Aramaioko fruta-arbolen ustiapen batean su-gorrina agertu zela. Hain zuzen ere, Azkoaga auzoko baserri bateko lau fruta-arbolari atzeman zioten gaixotasun hori.

Erraz hedatzen den gaixotasuna da su-gorrina. Hori dela eta, Diputaziokoek berehala hartu zituzten zaintza neurriak. Besteak beste, bi batzar egin zituzten udaletxean, egoeraren berri emateko eta hartu beharreko segurtasun neurriak jakinarazteko. Herritar ugari erakutsi zuen gaiarekiko interesa.

Horrez gainera, infekzio-fokua aurkitu zuten lekutik kilometro batera zeuden baserri guztietako fruta-arbolak laginak hartu eta aztertu zituzten Diputaziokoek.



Azkoaga auzotik kilometro bateko bueltan dauden fruta-arbola guzti-guztiak aztertu dituzte Diputazioko teknikariak.

ORAINGOZ EZ DA HEDATU SU-GORRINA
Hala, atzoko batzarrean, Diputazioko teknikariak jakinaraztekoak ziren lagin horien emaitzen arabera Aramaion, oraingoz, ez dagoela beste fruta-arbolarik gai-

xo. Albiste pozgarria, beraz, baserriarrendako.

Edozelan ere, horrekin batera, gogorarazi zuten gaixotasuna Aramaion hedatu ez den arren, infekzio-fokua agertu egin dela.

Beraz, komeni dela segurtasun neurriak hartzea. Hain zuzen ere, Diputaziokoek udan Aramaion egindako bi batzarrean esandako prebentzio neurriak hartzen segitu behar dutela gogo-

rarazi zieten herritarrei: inausketa lanak egiteko erremintak desinfektatu beharra, noizean behin fruta-arbolaren egoera zaintzea... Halaber, jakinarazi zieten Diputaziokoek eurek ere egingo dituztela, noiz edo noiz, halako zaintza lanak Aramaioko fruta-arbolatan.

BASERRIAREKIKO INTERESA

Bestalde, su-gorrinaren gaia lantzeaz gainera, proposamen bat ere egitekotan ziren, Aramaioko baserriarrendako: eurek interesa izanez gero, Udala gertu dagoela formazio ikastaroak bultzatzeko. Mertxe Mondragon alkateak zera esan digu: "Su-gorrinaren kontu horrekin, ikusi dugu Aramaion badela interesa baserriko gaiekiko, fruta-arbolak direla, edo baratza direla edo nekazaritza ekologikoa... Ez da lehen moduan, baina ikusi dugu jende asko ibiltzen dela hala-koekin".

Horregatik pentsatu du Udalak herritarrek ikastaroak-eta egiteko interesa baldin badute, Udalak ahalegina egingo lukeela laguntzeko eta ikastaro horiek bideratzeko: "Arrasaten egiten duten moduan, Mendikoirekin-eta, bada hemen halako zerbait egingo genuke".

HERRITARRENHITZA / Lierni Altuna • Gaztea

Gabon jaien gainekoak

Astebete geratzen da Bi aste eta piku geratzen dira berez, Gabonak asteko, baina instituzio batzuentzako aspaldi hasi ziren. Udaletxe, zentro komertzial, denda eta telebista gehienetan, denetan ez esatearren, aspaldi jarri zituzten argi eta apaingarri ugari, jostailu eta turroien iragarkiak ere gure artean daude jada. Gabonetako apaingarriak eta opariak erosi ez dituen oso berandu eta galduta ibili arren, lasai egon dadila, zentro komertzial eta denda askok, ONG batzuen papera hartuz, eta inoiz ikusi ez den solidaritate erakusketa bat eginez, jai egunetan irekiko dute.

Bai, nire hitzetan ironia pixka bat nabaritu duena zuzen dabil. Zergatik jartzen dituzte udaletxeek kaleetan horrenbeste argi eta bi hilabete lehenago? Zergatik bonbardatzen gaituzte guztioi kontsumismoan erorarazten gaituzten misilekin? Ze zentzu daukate gaur egun Gabonek?... Ez ditut Gabonak ulertzen!

Txikitzen gogoratzen naiz, Gabonak zoragarriak zirela, elurra egiten zuen, Olentzero etor-



"Jendea solidario bihurtzen da data hauetan"

tzen zen, familian elkartzen ginen, jaki gozoak jan,... Eta gaur egun zer aldatu da? Gabonak multinazionalak irabazitako urteko garai bat bihurtu direla eta ni ere nagusitu egin naitela, aspaldi esan zidaten Olentzero ez zela existitzen, aspaldi galdu nuen ilusio eta inozentzia hori, aspaldi konturatu nintzen mundu honen errealitate gordinaz.

Gainera, barregarriena iruditzen zaidana da, urte osoan

"existitu" ez diren arazo asko data hauetan azaleratzen direla, telemaratoiak egiten dira, jendea solidario bihurtzen da, datoren urte osorako bere obra ona eginez, jeje, zein hipokritak garen!!

Gure aukera da, Gabonetan, eros dezagun gure inkoherentzia eta tristeziak denak estaltzeko, edota, kontsumismoa alde batera utziz, ahalegindu gaitezen umen inozentzia horretara bueltatzen eta ez dezagun ukatu gure errealitate hau, baizik eta kontzientziatu gaitezen hobera aldatu ahal izateko, eta ez orain bakarrik, baizik eta urte osoko 365 egunetan.

LABUR

Ondasun Higiezin Gaineko Zergaren ordainketa

Bi aste barru bukatuko da Ondasun Higiezin Gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea, abenduaren 28an, hain zuzen ere. Orain ordaindu beharko dute bankuan zerga hori helbideratu barik dutenek. Helbideratuta dutenei, berriz, joan den abenduaren 9an kobratu zieten OHGZ.

Behin borondatezko epe hori pasatu ostean, ordaindu bako kuotak %20ko errekaruarekin kobratuko ditu Udalak.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

| | |
|---------------------------|--------------|
| Osasun etxea (txandak) | 945 44 53 40 |
| Botika | 945 44 50 03 |
| Udaletxea | 945 44 50 16 |
| Ertzainitza (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Gurutze Gorria (Legutio) | 945 45 52 52 |
| San Martin Eskola | 945 44 50 04 |
| Taxia eta autobusak | 945 44 50 33 |
| Udal kiroldegia | 945 44 53 35 |
| Postetxea | 945 44 50 83 |
| Zuako Eskualdea | 945 43 01 67 |
| Suhiltzaileak (Zubillaga) | 943 78 28 00 |

AUTOBUSORDUTEGIA

| ARRASATE | ARAMAIO | GASTEIZ |
|----------|---------|---------|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00* | 10:15 | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00* | 12:15* | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30* | 18:45 | |
| 20:30 | 20:45 | 21:25 |
| 21:00* | 21:15 | |

| GASTEIZ | ARAMAIO | ARRASATE |
|---------|---------|----------|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:15 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15* | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:55 | 14:10 |
| 16:20 | 17:05 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 18:45* | 19:00 |
| 19:30 | 20:00 | 20:15 |

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

LAN ESKAINTZA

Gasteizko Etorri elkarteak emakumea behar du adineko pertsona bat zaintzeko. Geriatriako laguntzaileei dagokien formazioa edo antzeko lanetan esperientzia duen pertsona eskatzen dute. Interesa duenak honako telefonora deitu behar du: 945 24 21 72.

BARIKUKO ZINEMA

Gaur, barikua, ez dutela zinema-emanaldirik egingo jakinarazi digute; bai, ordea, datorren barikuan, hilaren 23an. Hain zuzen ere, *El puente de San Luis Rey* drama aukeratu dute. 124 minutu ditu film horrek eta 2004an egindakoa da. Mary McGuckian da zuzendaria eta besteak beste, Robert de Niro, Kathy Bates eta Geraldine Chaplin aktoreek parte hartzen dute. Euro bat ordaindu beharko da sarrera. XVIII. mendeko Peru, Espainiako inkisizio garaian erakusten du filma horrek. Bestalde, jakinarazi digute abenduaren 30erako (barikua) ere antolatuko dutela beste zinema emanaldi bat.

Olentzeroren bisita goizean eta Gabonetako jaialdia arratsaldean

U.M.

Datorren eguaztenean, hilak 21, San Martin Eskolakoek Gabonetara begira egin ohi dituzten ekitaldiak egingo dituzte. Bestelakoan artean, Olentzeroren bisita izango dute, sorpresa-txo eta guzti. Seigarren mailako Andoni, Nerea, Beñat eta Paulak kontatu digute guztia:

“Urtero bezala, aurten ere, Gabonak girotzeko, goizetik hasita arratsaldeko laurak arte makina bat ekintza prestatu ditugu”.

GABONETAKO JAIALDIA

“Goizean Olentzero pasatuko da gela guztietatik eta gozokiak, jolasak, liburuak... utziko dizkigu. Ondoren, hamaikak inguruan, txistorrá jango dugu sabela betetzeko.

Edozelan ere, egun horretako ekintzarik bereziena arratsaldean izango da. Gabonetako jaialdia izango dugu eta guztiok parte hartuko dugu; besteak beste, abestiak, antzerkiak eta dantzak egingo ditugu. Gainera, aur-



SAN MARTIN ESKOLA

Eskolako bigarren mailako ikasleak, Albinan aurkitutako astaputz erraldoiarekin.

ten familia guztiak gonbidatzen ditugu ospakizun horretara.

Gabon zoriontsuak izan eta urte berri on guztioi eskolako ikasle, sukaldari, zaindari, irakasleen... aldetik“. Horixe bada

Andonik, Nereak, Beñatek eta Paulak egin diguten ekarpena.

GASTEIZERA IRTEERA

Horrez gainera, eskolako zuzendari Blanka Mendialduak jaki-

narazi digu eskolaurrekoak Gasteizera joango direla datorren martitzenean, hilak 20. Bestelakoan artean, Florida parkean ipintzen duten jaiotza ikustera joango dira. Bazkal ordurako eskolara etorriko dira baina bestetan baino beranduago izango denez, bazkari berezia izango dute, norberak etxetik ekarritakoa.

IPIIN KONTALARIA

Bestalde, seigarren mailako Ekain, Maria eta Alicia ikasleek kontatu digute Joseba Ramirez ipuin kontolariaren bisita ere izan dutela, liburutegiari esker: “Joseba Ramirezek *Zapataria eta Prakagorriak* (Grimmanaiena) izeneko ipuina kontatu zigun; itzaletan oinarritutako teknika txinatarra erabiliz, oso emanaldi zoragarria egin zigun. Esan behar dugu, baita ere, bertotan ez dela makala Joseba Ramirez emanaldian gertatu zen ezbehar batean oinarrituta, bat-batean oso bertso politak bota zizkigun-eta.

Eskolako LHko ikasle guztiok han egon ginen.

Zuiako argazki lehiaketan, bi aramaioar irabazle

U.M.

Zuiako Koadrilak antolatutako argazki lehiaketan irabazi dituzte bi sari bi aramaioarrek. Tarteetan, lehiaketako lehenengo saria, Itsaso Lopez de Bergarari eman diote, *Hotza* izenburudun argazkiarengatik.


Hala, Itsaso Lopez de Bergarak 400 euro eta garaikurra irabazi ditu.

Horrez gainera, beste aramaioar batek, Aitziber Aginagaldetik Aramaiori dagokion saria eskuratu du, *Udarako baratza* prestatzen izeneko argazkiarekin.

Bai Itsaso Lopez de Bergarak zein Aitziber Aginagaldetik, biek ala biek, Aramaio aukeratu dute lehiaketarako argazki protagonista izateko, Lopez de Bergarak neguan (beheko argazkia) eta Aitziber Aginagaldetik, udaberriaren, Gantzaga auzoa.


ARGAZKIAK, EGUTEGIRAKO

Guztira, 76 lan aurkeztu dituzte Zuiako Koadrilako III. Argazki Lehiaketara. Aramaioarrek gainera, beste zazpi lagun saritu dituzte. Argazki horiekin, irabazleekin, datorren urteko egutegia egingo du Zuiako Koadrilak.



Gabonetako menua prestatuko dute

Txirritola elkartearen eskutik, Dukiena jatetxeko Edurne Isazelaia Gabonetako menua prestatuko du martitzenean, hilak 20. 18:30en da hitzordua, erretiratuen egoitzan. Besteak beste, prestatuko ditu piper beteak onddo eta langostinoekin.



ITSASO LOPEZ DE BERGARA

Argazki irabazlea: *Hotza*, Itsaso Lopez de Bergarak ateratakoa.

LABUR

18/98 sumarioaren aurkako protesta ekitaldia ziren egitekoak atzo, eguena

Zenbait herritarrek deitu zuten atzoko protesta ekitaldia. Bi helburu zituen: 18/98 sumarioan oinarrituta egiten dabilzan epaiketaren beraren kontra protesta egitea eta epaiketaren inputatuta dauden euskal herritarrei elkartasuna adieraztea.

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 16a / 31. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

Saharako haurrendako jostailu bilketa Labidean

XABIER URTZELAI

Erakutsi diezaiogun Olentzerori Saharako bidea lelopean, Labidea dendan Saharako gaztetxoendako jostailuak batzen hasi dira. Horrekin batera, Gurasoen Elkarreak gertu dauka Gabonetarako egitaraua.

Olentzero dagoeneko iritsi da Gatzagara, baina ez opariak ekartzera, jasotzera baizik. Labidea dendan egingo ditu hainbat egun herritarren jostailuak jasotzen. Gatzagako gaztetxoek badakite aurten opari berriak jasotzeko etxean lekua egin behar dutela, eta Olentzerok jasoko dituela erabiltzen ez dituzten jostailu horiek, Saharara eramateko.



XABIER URTZELAI

Labidean dago Olentzeroren panpina, jostailuen zain.

GABONETAKO EGITARAUA

Gurasoen Elkarrekoek dagoeneko gertu dute Gabonetako egitaraua. Hala, bihar, hilak 17, kultur etxean pandero ikastaroa egingo dute, eta horrekin batera, Gabon kanten gaineko entsegua ere izango da.

Horrekin batera, bihar baita ere, gatzagarrak San Millango elizara gerturatuko dira, jaiotza egitera. 11:30ean hasiko dira lan hori egiten. Abenduaren 23an, berriz, herriko gaztetxoek ludo-

tekan prestatutako antzezlanak antzetzuko dute. 18:30ean hasiko dute ikuskizuna, kultura etxean. Eta amaitzeko, abenduaren 24an, 09:00etan hasita, herritarrek Olentzerorekin batera joango dira baserriz baserri.

PILOTA TXAPELKETAKO IZENEMATEA

Gaur, egubakoitza, da Gabonetako Pilota Txapelketan izena emateko azken eguna. Antolatuzaileek 12 bikote aurreikusten dituzte, eta txapelketa abendua-

ren 27an eta 28an jokatu dute. Bikote kopuruaren arabera erabakiko dute txapelketa egun batean edo bi egunetan egitea. Nagusien finalak jokatu aurretik, baina, gazteak izango dira protagonista. Hala, Jose Inazio Beloki eta Mauri Zubillaga pilota entrenatzaileek zeingehiagoka polita antolatu dute egun horretarako: Gatzagako eta Arrasateko pilotariak aurrez aurre. Herri bakoitzak zazpi bikote izango ditu, hainbat mailetakoa.

'Asteburua Euskal Herrian' ikastaroa KZgunean

X.U.

Datorren astelehenean ikastaro interesgarria emango dute KZgunean **Asteburua Euskal Herrian** izenekoa. Izenak ondo dioen moduan, ikastaroaren helburua izango da Euskal Herriko edozein leku bisitatu ahal izateko informazioa zelan bilatu jakitea.

Denetik dago Interneten: non lo egin, zer bisitatu, asteburu horretan izango den ikuskizun saila, zein eguraldi egingo duen, gomen dioak, sarrerak erosteko edo erreserbak egiteko aukera... dena. Baina, beste kontu bat da informazio hori guztia non dagoen jakitea, eta besteak beste, horre-

tan ahaleginduko da KZgunean Aitor Madrid astelehenean, webgune interesgarriak erakusten.

Hala, adibidez Bilbo aukeratu gero, www.guggenheim-bilbao.es webgunean izango dugu Bilboko museo ezagunaren berri. Horrekin batera, www.bilbao.net en aurkituko dugu hiriburuaren gaineko mapa, www.lanetro.es en esango digute non jan daitekeen ondo eta www.viapolis.com en azalduko da asteburu horretako ikuskizun saila. Horiek adibideak baino ez dira, eta astelehenean Aitorrek emango ditu argibide gehiago.

Astelehenean 16:00etatik 20:00etara egongo da Aitor KZgunean, baina ikastaroa 17:00etatik 19:00ak arte izango da.



Bilboko Guggenheim museoko web orria.

Herritarrek ez daude pozik udaletxeko antena berriarekin

X.U.

Kutzazainak gura baino buruhauste handiagoak sortu ditu, eta oraindik ez du dirurik eman. Hala, herritarrek ez daude kutxazainak funtziona dezan jarri duten antenarekin batera gustura.

Orain dela hamabost egun inguru jarri zuten udaletxeko horman antena galanta, justu kutxazainaren beste aldean. Eta, antena

hori beharrezkoa da kutxazainak funtziona dezan. Joxerra Perez alkateak badaki herritarrei ez diela grazia handiegirik egin antena horrek: "Ulertzekoa da, estetikoki ez da-eta batere polita. Udalean badakigu jendeari ez zaiola batere gustatu antena dagoen lekuan jartzea, baina hori da leku onena. Beste aukera bat zen udaletxearen teilatuan jartzea, baina horretarako obra handia egin behar zen. Eta, obra hori egiteko dirutza gastatu beharrean

erabaki dugu horma horretan jartzea, hor jartzeak ez du-eta kosturik izan".

DATORREN URTERAKO

Udaleko ordezkariak oraindik ez dakite noizko egongo den kutxazaina erabilgarri. Kutzara eta Telefonikara deituko dute, Gabonetan martxan egongo ote den jakiteko, baina euren esanetan, gaitza izango da hori lortzea. Badirudi herritarrek 2006ra arte itxaron beharko dutela.



Kutzazaina erabili ahal izateko antena jarri dute.

Gabonetako opariak **MARGA** jantzi-dendan % 30eko beherapenarekin



Iturriotz 21
ARRASATE
Tel.: 943 71 17 40

AITZORROTZ eta ARANZABAL koop. elk. elektrizitatea

AITZORROTZ



- Automatismoak eta mantentze-lanak
- Instalazio elektrikoak
- Atezainak eta antena kolektiboak: salmenta eta konponketa
- TB-AUDIOA-BIDEOA: salmenta eta konponketa
- Digital +
- Telefonía
- Informatika
- Argiztapena

Zorionak denoi!



Lur Telebista Digitalaren antenen egokitzapenak

AITZORROTZ elektronika

Otalora 14 Tel: 943 79 16 10 Aretxabaleta

ARANZABAL koop. elk. elektrizitatea

Zerkaosteta 15 Tel: 943 79 68 21 Arrasate

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORATZA

IBARRA JATETXEA



- menua
- karta
- plater konbinatuak
- bokatak

Araba ibilbidea 29 • TEL.: 943 79 18 03



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01



Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

H A I Z E A



Kafetegia
eta
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

Mirrentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67



Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

BASABE

Mentak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura.

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57




Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Pizzak
- Oilaskoak eta
- paellak eramateko



ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68